

Bergarako astekaria

# Berrigara

Olaf Olañeta eta Argiñe Urkiola,  
karobarrutiako karobian



Langintza  
zaharrak ezagutzen  
**Karobiak**

# OPEL



**TALLERES OLA**

Olabarren auzoa z/g.  
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47.  
BERGARA.


Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:  
**TAKOLO AUTOAK, S.L.**  
Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa).  
Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK

# HAUEK ERE BAI...



EULALI ELKORO



BERGARAKO EHE




ASIER ELORZA



MAITANE  
ARIZABALETA



DUNIXI OLABARRIA



KUKUMA  
HANKAPALOA



SABAS IGARTUA



XAMATZ  
DANTZA TALDEA



MIKEL LASKURAIN



TXAPA  
IRRATIA  
97.25 FM



GORKA BELASTEGI




LURDES ARANBURU



OIHULARI KLOWN



JOKIN ETXANIZ




Aldoka  
Maldoka  
TABERNA


POPI'S



IDOIA ILARDUIA



JARDUN  
EUSKARA ELKARTEA



KOBOK  
DULTZAINEROAK

...esan zeuk ere  
**BAI EUSKARARI!**


izena eman

**zek**<sup>n</sup>

Begarako AKULU AEK euskaltegia

Tf. 943 76 05 18

euskaltegi eta barnetegietan!



# Etorkizuna

Andres Osa "Sakona" / Irakaslea

Zer, nola eta non ikasi behar du hiru urtetik aurrera zure seme-alabak? Hori da gurasoek egiten duten galdera. Hobe da orain egitea gero, erremediorik ez dagoenean, garbata baino.

Kurtoaren hasieran gaude. Dagoeneko erabakia hartu da. Baina beste ikasturte baten atarian gaudela esan behar. Ez genuke ahaztu behar, gaurko haurra biharko gizon-emakume euskaldun jatorra ikusi nahi badugu, ezinbestekoa dela irakaskuntza osoa euskaraz burutzea eta horrekin batera euskal kontzientzia sortaraztea, euskal kulturaz igurzte, gure nortasunaren legamia izan dakion.

Ezin dugu ahaztu, era berean, lanean hasteko garaia heltzen zaionean lana aurkitzea gaur baino zailagoa izan-go duela euskara menperatzen ez badu. Ura presatik pasata gero, alferrikoak izaten dira hileta batean marmarka jardutea. Hautaketa egokia egitea ezinbestekoa da estualdian ez agertze-ko. Aukeraketa hori, D eredu soil-soilik eman ez ezik, euskararen erabilpe-

na ere bermatzen duen ikastetxea da. Ereduak nahastuta daudenean fulamentuzko emaitzarik ezin izaten da lortu.

Baina bada beste une bat, Derrigorrezko Hezkuntza burutu ondoren, 16 urteren bueltan gertatzen den trantzea. Geroa aukeratu egin beharra. Batxilergo bidetik jo behar al da orain arte gehienek egin duten bezala? Zorionez, Deba bailaran beste bide bat hartu izan da eta emaitzak hor daude. Halere, Lanbide Heziketarako joera areagotu egin behar da, Euskal Herri osoan zehar, etorkizunari erantzun jatorra eman guran. Egun, lan mundurako eskulan espezializatua eskatzen da, Europatik datorren haizea da. Gazteen %80k bide

horretatik jo behar duela esaten da. Unibertsitatea langabezia sortzen ari da. Hortxe dabilta milaka gazte noraezean.

Eta, azkenik, Lanbide Heziketa arloan euskarak zer nolako tokia du? Erdal ereduak dute ia-ia erabateko nagusitasuna. Euskara langile mundura hedatzen ez bada, hau da, eguneroko bizitzan oinarritzen ez bada nork salbatuko du gure hizkuntza?

Puntu honetan batxilergoa eta unibertsitatea hobeto horniturik daude. Norbaitek gogoratu digu hutsune horren zergatia non datzan: Derrigorrezko Hezkuntza eta Batxilergoan ikastola mugimenduak hainbeste lan egin badu testugintzan, Heziketa Profesionalean ez omen da urratsik eman ikastola horiek beste bidetik abiatu direlako hain zuzen. Hauek, ez dute eragin zuzenik ez zeharkakorik izan. Zuzenean ez dira ikastolak mundu horretan murgildu eta, ondorioz, ez dira izan akuilari beste sarean izan diren bezala. Ikastolak hor sartu izan balira, beste kukurruko ozenagoa entzungo genuen. B

*"Euskara langile mundura hedatzen ez bada, hau da, eguneroko bizitzan oinarritzen ez bada, nork salbatuko du gure hizkuntza?"*

■ barruan



**Eudald Guillaumet**

Zaharbertitzailea

*"Egino-Malleako fatxada berrizteko lanetan oso eskuhartze arina egingo dugu"*

8. orrialdean.



**J. Mari Larrañaga**

Miguel Altunako zuzendaria

*"Eskola guztia inplikatu da etengabeko hobekuntza proiektu honetan"*

18. orrialdean.



**Josu Leturia**

Surra irrati-taldekoa

*"Irrati ekipoarekin aritzeko denbora falta zait; harategiko lanak ez dit astirik lagatzen"*

29. orrialdean.

# orain dela...

## BERGARAN GERTATUA

**1992.** Irailaren 17an Amaia Aranzabal mendizale bergararrak Cho Oyuko (8.189 metro) gailurrera iristea lortu zuen Josu Bereziartua azpeitiarrarekin batera. Bera izan zen zortzi milako bat igotzea lortu zuen lehen emakume euskalduna.

## EUSKAL HERRIAN GERTATUA

**1868.** Irailaren 18an Bigarren Gerra Karlista hasi zen.

**1931.** Irailaren 20an "Bertsolariya" aldizkaria sortu zen Erreterian.

**1932.** Irailaren 15ean Alcala Zamora Errepublikako lehendakariak Kataluniako Estatutua izenpetu zuen Gipuzkoako Aldundian.

## MUNDUAN GERTATUA

**1960.** Irailaren 14an, Petrolio Herrialde Esportatzaileen Elkar-  
tea (OPEP) sortu zen Bagdad.

## zozketak

### BONO LOTO

**Eguakitza 11**  
16-19-30-31-36-43 (osag.6/er.7)

**Astelehena 14**  
4-13-19-20-44-47 (osag.10/er.4)

**Martitzena 15**  
2-4-6-11-14-35 (osag.23/er.8)

**Eguaztena 16**  
1-6-20-22-38-44 (osag.27/er.2)

### PRIMITIVA

**Zapatua 12**  
13-17-20-22-25-38 (osag.46/er.5)

**Domeka 13 Gordo**  
2-5-14-25-45-49 (osag.20/er.7)

### ONCE

**Eguakitza 11:** 14.637 (K. seriea: 086)

**Astelehena 14:** 53.573

**Martitzena 15:** 62.788

**Eguaztena 16:** 18.669

### BESTE BATZUK

**Bedelkar, zapatuko zozketa (Txerria edo 50.000 PTA):**  
20.030 (agertuko ez balitz: 161)





## Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Astebukaeran urdinguneak nagusituko zaizkigu zeruan, lainoren bat edo beste agertu badaiteke ere. Haizeak ekialdetik joko du arin eta tenperaturak gora egingo du. Eguraldi eguzkitsu eta epela, beraz, astebururako.

## Ilargiaren aldiak

-  Ilbehera: irailak 13
-  Ilberri: irailak 20
-  Ilgora: irailak 28
-  Ilbete: irailak 6

## Eguzkia

Domeka, irailak 20



Sortu: 08:02



Gorde: 20:17

## Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max. °C	min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
<b>Eguena 10</b>	22	15	0,8
<b>Eguakitza 11</b>	20	11	13,6
<b>Zapatua 12</b>	19	11	38,3
<b>Domeka 13</b>	15	14	9,3
<b>Astelehena 14</b>	16	11	6,9
<b>Martitzena 15</b>	21	13	0,3
<b>Eguaztena 16</b>	20	12	0,4

## bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

### Aixkol-ots

Aizkorak egurra jotean ateratzen duen zarata.

- Manuelek dabill  
aixkol-otsa goizian  
goizetik.



JOSU OKINA

## hamaika ikusteko jaio ginen!

### Estresarekin sormen haundiagoa

Göttingen-eko (Alemania) Unibertsitateko Gerald Hüther-ek adierazi duenez, aintzinako esperientzetan ikasitakoaren laguntzaz gaintu ezin den estres iraunkorrak, neuronen arteko konexioak nasai arazi eta pentsamendu-egitura zaharrak disolbatu egiten ditu, eta, gainera, ideia berriendako espazioa sortzen du. Hori dela eta, sormen-ahalmena haunditu egiten da.

## Farmaziak

### Eguakitza 18:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

GAUEZ: RUIZ. Arrasate. Tf. 943 79 14 09.

### Zapatua 19:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

GAUEZ: MORALES. Arrasate. Tf. 943 79 18 66.

### Domeka 20:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

GAUEZ: AZKOAGA. Arrasate. Tf. 943 79 15 15.

### Astelehena 21:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

GAUEZ: ESPAÑOL. Arrasate. Tf. 943 79 14 88.

### Martitzena 22:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

GAUEZ: CORCUERA. Arrasate. Tf. 943 79 22 28.

### Eguaztena 23:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

GAUEZ: IRIZAR. Arrasate. Tf. 943 79 12 39.

### Eguena 24:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

GAUEZ: AMEZUA. Arrasate. Tf. 943 79 09 74.

## Ogia

**Domeka 20:** Ogizun.

## Telefonoak

### OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 76 12 94
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udalzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 79 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 48
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

### GARRIAOK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

### UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

### BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuena Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 85

# zorion agurrak



**Asier Carballo**  
Irailaren 11n  
12 urte. Zorionak!  
Etxekoak  
eta lagunak.



**Amaia Mendizabal**  
Irailaren 10ean  
14 urte. Zorionak!  
Amama  
eta familiakoak.



**Aritz Irazabalbeitia**  
Irailaren 24an  
20 urte. Zorionak!  
Eneritz eta Irati.



**Irati Madariaga**  
Irailaren 25ean  
5 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Iban Igartua**  
Irailaren 12an  
16 urte. Zorionak!  
Mikel eta  
koadrilakoak.




**Denis Armendariz**  
Irailaren 8an  
16 urte. Zorionak!  
Koadrilakoak.



**Maribel Carazo**  
Irailaren 18an  
29 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Julio Carazo**  
Irailaren 18an  
urtebetetzea.  
Zorionak!  
Etxekoak.



**Ander Aguila**  
Irailaren 3an  
21 urte. Zorionak  
osaba! Maider,  
Gorka eta Mikel.



**Mirian Morais**  
Irailaren 15ean  
12 urte. Zorionak!  
Familiakoak.



**Idoia Larrañaga**  
Irailaren 15ean  
27 urte. Zorionak!  
Familiakoak  
eta lagunak.



**Imanol Clemente**  
Irailaren 21ean  
6 urte. Zorionak!  
Gurasoak.



**Ane Miren Muguruza**  
Irailaren 18an  
3 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Ion Frias Gomez**  
Irailaren 18an  
6 urte. Zorionak!  
Nekane, Laura eta  
gurasoak.



**Josu Rueda**  
Irailaren 13an  
2 urte. Zorionak!  
Familiakoak.



**Libe Stutter**  
Irailaren 21ean  
2 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Amaia Goienetxea**  
Irailaren 16an  
9 urte. Zorionak!  
Etxekoak  
eta lagunak.



**Amaia Oregi**  
Irailaren 20an  
urtebete. Zorionak!  
Etxekoak.



**Ana Madinabeitia**  
Irailaren 21ean  
6 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Nerea Gonzalez**  
Irailaren 17an  
5 urte. Zorionak!  
Familiakoak.



**Amaia Mendibil**  
Irailaren 24an  
11 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Mirian Morais**  
Irailaren 23an  
12 urte. Zorionak!  
Familiakoak.



**Kristina Olazabal**  
Irailaren 22an  
urtebetetzea.  
Zorionak eta  
muxu bat! Etxekoak.



**Ander Arruti**  
Abuztuaren 14an  
7 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Gorka Oregi**  
Irailaren 21ean  
5 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Bidane Alberdi**  
Irailaren 19an  
10 urte. Zorionak!  
Etxekoak  
eta lagunak.



**Asier Madinabeitia**  
Irailaren 17an  
32 urte. Zorionak!  
Familiakoak.



**Amaia Madinabeitia**  
Irailaren 15ean  
33 urte. Zorionak!  
Joanes eta familiak.

## PESA autobusak

**Bergara-Antzuola.** Lanegunak: 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 17:00, 18:00, 20:30. Zapatuak: 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

**Antzuola-Bergara.** Lanegunak: 08:30, 09:40, 16:40, 17:15, 18:00, 20:40. Zapatuak: 08:30, 18:00, 20:40. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

**Bergara-Arrasate-Eskoriatza.** Lanegunak: 07:35, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30\*, 21:05\*, 21:35\* (\*Arrasateraino). Zapatuak: 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30\*, 21:05\*, 21:35\* (\*Arrasateraino). Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05\*, 21:35\* (\*Arrasateraino).

**Bergara-Gasteiz.** Lanegunak: 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15. Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.

**Gasteiz-Bergara.** Lanegunak: 05:45, 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Zapatuak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

**Arrasate-Bergara.** Lanegunak: 06:05, 06:30, 07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Zapatuak: 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:15, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Domeka eta jaiegunak: 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

**Bergara-Oñati.** Lanegunak: 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. Zapatuak: 20:45. Domeka eta jaiegunak: ez dago zerbitzurik.

**Oñati-Bergara.** Lanegunak: 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.

**Bergara-Eibar.** Lanegunak: 06:20, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Zapatuak: 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Domeka eta jaiegunak: 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

**Eibar-Bergara.** Lanegunak: 06:15, 07:00, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Zapatuak: 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Domeka eta jaiegunak: 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.

**Bergara-Donostia (Autopistatik).** Lanegunak: 06:45, 08:35, 13:35, 14:35, 15:35, 19:35. Zapatuak: 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. Domeka eta jaiegunak: 10:05, 19:35.

**Bergara-Donostia (Tolosatik).** Lanegunetan: 09:00, 18:00. Zapatuak: 09:00, 18:00. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

**Donostia-Bergara (Autopistatik).** Lanegunak: 05:45, 08:15, 12:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. Zapatuak: 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. Domeka eta jaiegunak: 18:00, 20:45.

**Donostia-Bergara (Tolosatik).** Lanegunak: 07:00, 16:30. Zapatuak: 07:00, 16:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 16:30.

**Bergara-Bilbo.** Lanegunak: 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. Zapatuak: 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. Domeka eta jaiegunak: 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

**Bilbo-Bergara.** Lanegunak: 08:00, 12:30, 17:00, 20:00. Zapatuak: 08:00, 17:00, 20:00. Domeka eta jaiegunak: 09:00, 12:30, 17:00, 19:30, 21:00.

## jaio t a k o a k

**BERGARA**  
**Maider Ramudo Marcos**  
Uztailak 7

## hildakoak

**BERGARA**  
**Doroteo Aldazabal Lizarralde**  
Irailak 9, 64 urte  
**Eduardo Castellano Martinez**  
Irailak 10, 63 urte  
**Lolita Erdabide Etxaniz**  
Irailak 15, 76 urte

## mezak

**Santa Marina**  
Domekak:  
13:00.  
Zapatuak: 20:00.  
Lanegunak: 19:30.

**San Pedro**  
Domekak:  
09:30.  
Zapatuak eta  
lanegunak: 19:00.

**Osintxu**  
Domekak: 11:30.  
Zapatuak: 19:00.

**Elosu**  
Domekak: 10:00.

**Ubera**  
Domekak: 10:30.

**San Juan**  
Domekak: 11:00.

**Basalgo**  
Domekak: 13:00.  
**San Prudentzio**  
Domekak: 10:30.  
**Labegarieta**  
Domekak: 11:00.  
Zapatuak: 19:00.

**San Lorentzo**  
Zapatuak: 19:00.  
**Angiozar**  
Domekak: 10:30.  
Eguakitza: 19:00.

**Monja Zaharrak**  
Domekak: 19:30.  
Zapatuak eta  
Lanegunak: 08:00.

**Mizpirualde**  
Domekak: 11:45.  
Zapatuak eta  
lanegunak: 11:45.

**Mariaren Lagundia**  
Domekak: 10:30.

Zapatuak eta  
lanegunak: 09:00.

**Antzuola**  
Domekak:  
09:00, 11:30.  
Zapatuak eta  
lanegunak: 19:30.

**Uzarraga**  
Domeka: 10:00.

## MUSIKA

► **Cosmic Psychos eta The Onyas** taldeak bihar, zapatua, 21:30etan Jam aretoan. 1.300 pezeta. Domekan, hilak 20, **The Young Gods eta LT No** taldeak.

► **Mikel Laboa** bihar, zapatua, 22:30etan Oñatiko Zubikoa Kiroldegian. Aurrez 1.000 pezeta (Etxeparen eta Kortazarren) eta takilan 1.200 pezeta.

## ERAKUSKETAK

► **Andres Trompetak** lore eta hostoekin egindako konposizioak Bergara Kafe Pentsioan ikusgai, irailaren bukaerara arte.

► **Gorka Elorzaren** oleoak eta plumilak Nahikarin.

► **Pintura lehiaketako lanak** Kultur Etxean domekara arte.

## IKASTAROAK

► **Moises Aspiazu** dantza taldeak 4 urtetik gorako umeei zuzenduta, fandango eta arin-arin ikastaroak emango ditu urriaren 5etik aurrera (asteen hiru egunez, 17:00etatik 18:00etara). Asteen bi egunez helduentzako ikastaroak ere izango dira. Argibideak 943 76 15 40 zenbakian.

### BERTSOAK

## Bertso jaialdia

**Non:** zapatua, 22:30etan  
**Noiz:** Novedades aretoan  
**Sarrerak:** aurrez 800 PTA, takilan 1.000 PTA

Herriko zein inguruko bertsozaleek ezinbesteko zita izango dute bihar, zapatua, Novedades aretoan, Jardun elkarteak San Martin jaien inguruan antolatu ohi duen bertso jaialdiakin. Aurtengoan ere puntako bertsolarien partaidetza lortu da. Horrela, Andoni Egaña Euskal Herriko azken txapeldunarekin batera, Maialen Lujanbio, Ainhoa Agirreazaldegia eta Jesus Mari Irazu gazteak eta Sebastian Lizaso eta Ion Sarasua "beteranoak" arituko dira bertsoan. Joserra Gartzia ezaguna izango da gai jartzailera eta ziur asko estuasunetan jarriko ditu bertsolari guztiak, zalegoaren gozamenerako. Ainhoa Agirreazaldegia bergararra izango da berriz ere partaiderik gazteena. Gogo-

ratu duela bi aste, Zarautzeko Zinema Kiroldegian, Bertsolari Gazteentzako XXII. Lizardi Sarian bigarren postuan sailkatu zela Ainhoa. Bihar jendeaurrean esperientzia haundia duten bertsolariak izango dituen alboan. Aurreko urteotan San Martin jaietako bertso jaialdiak jende dexente bildu du eta bihar ere sarrera bikaina izango dela espero dute antolatzaileek. Bertso saioak ordu eta erdi inguruko iraupena izango du.

Bertso jaialdirako sarrerak Novedadesko takilan bertan eskuratu ahal izango dira bihar. Dena dela, aurrez erosi nahi izanez gero, interesatuek Etxepare liburutendara edota Pol-Pol eta Kortazar tabernetara jo dezakete. B



Jon Sarasuak iaz ere parte hartu zuen Jardunek antolatutako bertso jaialdian.

► **Txalaparta ikastaroa** irailaren 24tik azaroaren 22ra. Ostegunetan 19:00etatik 21:00etara Kartzelan. Izen-ematea (1.500 pezeta Jarduneko bazkideentzat, 2.000 gainontzekoentzat) irailaren 22a baino lehen Kartzelan. 943 76 08 19.

► **Ana Orgazen** tailerrak hainbat ikastaro antolatu ditu: arte eta eskulanak (izen-ematea Ardatzan eta Igartzta mertzerian), ahots lanketa, erlajazio eta arnas-keta tailerra, masaje eta automasaje teknikak eta yoga ikastaroa. Azken

hauetarako izen-ematea Etxeparen egin daiteke. Argibideak: 943 76 35 99.

## LEHIAKETAK

► **Bergara Hiria XIV. Argazki Lehiaketa.** Lanak

### ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa... Leihoak, ateak, manparak...



Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik

Erakusketa: Masterreka 14 behea BERGARA  
Tf.: 943 76 55 02 Faxa: 943 77 11 30

### IBARGUREN PENTSUAK

BIONA pentsuen biltegia,  
BIOTER produktuak,  
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

### Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gatelea  
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA  
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

Kultur Etxean jasoko dira irailaren 30era arte.  
Argibideak: 943 76 39 96.

## DEIAK

► **Emakundek** Europako emakumeei Saharako emakumeei irailaren azkenetan egingo duten solidaritate topaketan parte hartuko du. Bulegoko materiala (ordenagailuak, programak, fax papera...) eta txanpuak, gelak, pardelak eta horrelakoak jasoko dira martitzenera arte Elkar fotokopiadendan, Aldi-Irala supermerkatuan eta Goiara lurrindegian.

► **Pol-Polek eta Gorla Alpinok** nagusiei zuzenduriko mendi irteera iragarri dute irailaren 27rako. Ibilbidea Errialde-Ernio-Errexil izango da. Izen-ematea Pol-Polen, 943 76 48 51 zenbakian.

► **Jubilatuei zuzendutako egonaldiak** bainuetxe-etan edo Mediterraneoan urrian eta azaroan. Izen-ematea eta argibideak Jubilatuetan edo 900 43 43 43 zenbakian.

► **Justo Garate Arriola beka.** 1998ko deialdian soziologiako gaietara zuzenduta dago. Ikerketa-lana euskaraz egingo da, bekaren iraupena 11 hilabetekoa da eta diru zenbatekoa 935.000 pezetakoa. Dokumentazioa aurkezteko

epea irailaren 30era bitartean egongo da zabalik.  
Argibideak: 943 77 91 58.

## OHARRAK

► Udalak emakumeei zuzendutako **yoga ikastaroa** astelehenean hasiko da Irizar jauregian.

► **Bergarako Helduen Eskolak** (HHI-EPA) 1998-99 ikasturterako matrikula epea zabaldu du. Irakaskuntza ofiziala eta doanekoa da. Argibide gehiago Barrenkale 33.eko 2. pisuan edo 943 76 44 52 telefonoan.

► **Euskalduntze, alfabetatze eta EGA** ikastaroak Udal Euskaltegian. Argibideak Zabalotegi 13an edo 943 76 44 53 telefono zenbakira deituz.

## KINTADAK

► **1948an** jaiotakoan afaria irailaren 26an Lasa jatetxean, 21:30etan. Aurretik meza izango da Santa Marinan. Afalostean, dantzaldia mariatxiekien. Izen-ematea (8.500 pezeta) Kutxan edo Euskadiko Kutxan martitzenera arte egin daiteke.

► **1940an** jaiotakoan afaria azaroaren 7an Antxonin jate-etxean. Izen-ematea: 943 76 34 36 (Mari Tere) eta 943 76 45 75 (Begoña).

## Z I N E A

### KARTELDEGIA

#### BERGARA. Novedades

##### Arma letal 4

Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 17:00.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

##### La caja china

Eguena, zine-kluba: 20:00.

#### ARRASATE. Alai zinema

##### Godzilla

Eguakitza: 22:00.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.  
Astelehena: 19:00, 21:30.  
Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

#### EIBAR. Unzaga

##### Seis dias, siete noches

Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

#### EIBAR. Rialto

##### Promesas incumplidas

Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

#### ONATI. Santana

##### Cha cha cha

Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.

#### ELORRIO. Arriola

##### Al caer el sol

Zapatua: 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:00.

##### Pactar con el diablo

Eguena, zine-kluba: 20:00.

#### AZKOITIA. Baztortxo

##### El ultimo patriota

Eguakitza: 22:00.  
Zapatua: 22:00.

##### Mr. Magoo

Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.  
Astelehena: 20:00.

### ARMA LETAL 4

**Zuzendaria:** Richard Donner.

**Aktoreak:** Mel Gibson, Danny Glover, Joe Pesci, Rene Russo.

Aurrekoetan Riggs eta Murtaugh (Mel Gibson eta Danny Glover) bikotearen gorabeherak mundu osoko takiletan izan duten arrakasta izugarria ikusita, produktoreek biak elkartu dituzte berriz. Oraingoa faltsifikazioarekin eta kontrabandoarekin zerikusia duten hilketa batzuk argitu beharko dituzte eta, horretarako, Leo Getz-en (Joe Pesci) laguntza primeran etorriko zaie...



### LA CAJA CHINA

**Zuzendaria:** Wayne Wang.

**Aktoreak:** Jeremy Irons, Gong Li, Maggie Cheung, Michael Hui.

Wayne Wang-en (*Sentido y sensibilidad*) filme honek emango dio hasiera aurtengo zine-klubeko programazioari. Britainia Haundiak Txinari Hong Kong itzuli zion urtean girotuta dago. Gaisotasun larri baten erruz hiltzear dagoen Jobnek (Jeremy Irons) sentitzen duen guztia azalduko dio sekretuan maite duen emakumeari.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

Aprobetxatu oporrak  
GIDA BAIMENA  
ateratzeko

**LARRAÑAGA**  
A U T O E S K O L A

Izena ematean  
%10EKO BEHERAPENA  
Gazte Txartelarekin

Tf. 943 76 16 63

**Eudald Guillamet zaharberritzailearen taldeak Egin-Malleako fatxada konpontzeko lanei ekin dio. Guillamet (46 urte) mundu osoan lanean ibilitakoa da, Egipton, Jordanian, Italian edota Bolivian arte lanak berri- teko enkarguak jaso dituelarik. Unesco eta Getty Fundaziorako lanak egin ditu eta "La memoria del pasado" tele- saileko aholkulari zientifikoa izan genuen.**

**G.** Zela suertatu zitzaizun Bergaran lan egiteko aukera?

**E.** Denbora dexente daramat Gipuzkoan lanean: Debako elizako fatxadan, Elgoibarko labar-pinturetan, Donostiako San Bizente elizan, Andoainen..., beti ere beste lan batzuekin tartekatuz. Duela gutxi, iaz Santanderreko "La gruta del pendo"n aurkitu zituzten labar-pinturetan ere izan gara lanean astebetetz. Horrela, lankide batzuen bitartez, Xabier Aranburuk Egin-Mallean berri- teko lanak egiteko asmoa zuela jakin nuen. Fatxada oso interesgarria iruditu zitzaidan eta beti ere ondo dator lanerako kalitatezko lanak aukeratzea. Gipuzkoan dagoen fatxada manierista bakarra dela uste dut eta Euskal Herrian ere horrelako gutxi izango dira.

**G.** Zein egoeratan aurkitu duzu fatxada?

**E.** Oinarrietan zizelatu- tako elementuak nahiko egoera txarrean daude, baina gainontzekoa ez dago hain gaizki. Berriztapen lan ona egin daitekeela uste dut. Fatxadarekin hilabete eta erdi inguru emango dugu lanean, 5-7 lagun ordezkatuz joango garelarik. Beraz, dena ondo badoa, urri hasierarako lanak amaitzea espero dugu.

**EUDALD GUILLAMET**  
Zaharberritzailea

## *"Ondare artistikoaren kontserbaziorako joera dago Euskal Herrian"*



Eudald Guillamet Andorreako da eta mundu osoan aritu izan da lanean.

**G.** Zelako teknikak erabiliko dituzue?

**E.** Oso eskuhartze arina egingo dugu. Harrian edozein produkturen (harea edota ur txorrostadak) eragina saihestuko dugu, ez da batere agresiboia izango. Harriaren inguruan ura atomizatu egingo dugu, ura lainotzatuz. Ondoren, eskuila leunekin zikinkeraren le-

hendabiziko geruza (kutsadura, hautsa...) kenduko dugu. Zorionez, Bergaran, Gipuzkoako beste leku batzuetan baino kutsadura gutxiago dagoela ohartu gara eta ez dago orban beltzik harrian. Oso inportantea izaten da tokian tokiko mikroklima. Eta orbanak kentzea lortzen ez dugun tokietan zelulosa eta amonio karbonatoko zelulosa pasta bat aplikatuko da, ondoren lainotzutako urarekin garbitzeko. Orbanak gogorragoak badira, beste osagai batzuk gehituko genituzke.

Bestalde, juntura asko zementuarekin estalita daude eta hori oso txarra da ondarearen kontserbaziorako, zementuak aldaketak sortzen dituzten geruza iragazkaitzak sortzen dituelako. Beraz, juntura horiek kare eta hareazko morterozko juntura tradizionalekin ordezkatuko ditugu. Behealde solidante akrilikoarekin finkatuko da harriaren ezaugarri fisikoak galdu gabe, porositatea, zurgapena eta lurrinketari eusteko. Irizpide moderno eta zorrotzak jarraituta lan egingo dugu.

**G.** Herriko gainontzeko ondareari buruz zein iritzi daukazu?

**E.** Gauza benetan miresgarriak daude Bergaran. Zenbaitetan berri- teko lanekin modu oso zorrotzean jokatu da. Udaletxean, esate baterako, harria berriegia ikusten da eta niri hori ez zait gehiegi gustatzen. Harriak meteorizazioarekin azal moduko bat sortzen du eta zikinkeria bai, baina hori ezin diozu kendu. Dena den, oso kontserbazio onen dira eraikuntza gehienak, alde horretatik zorte handia duzue hemen. Euskal Herrian orokorrean badago ondarearen kontserbaziorako joera eta lan interesgarria egiten ari da. B

**"Egin-Malleako fatxadan oso eskuhartze arina egingo dugu. Harrian edozein produkturen eragina saihestuko dugu"**




# Surrakoen eskutik, 24 Orduko Irrati Kontaktu Lehiaketa zapatuan

**Surra irratizale taldeak 10. urteurrena ospatuko du zapatuan eta, horretarako, 24 Orduko Irrati Kontaktu Lehiaketa antolatuko du.**

Helburua, 24 orduan ahalik eta kontaktu gehien lortzea da eta aurten 2.500 QSL-txartel berezi kaleratu dituzte Bergarako Udalaren laguntzaz. Txartel berezi hauek, postal itxurakoak dira: aurrealdean, San Pedro eliza eta Udal Artxiboko sarrera agertzen dira, San Martin plazatik ateratako argazkian; atzeko partean, ostera, egin den kontaktuari buruzko datuak (izena, deitura, eguna, zigilua, sinadura e.a.). QSL-txartelak, irratizaleak egiten duen kontaktuen oroigarri eta froga-agiritzat erabiltzen dira.

24 orduko Irrati Kontaktu Lehiaketa zapatuan eguerdiko 12:00etan hasiko da eta domekara arte egin-



Alkatea eta hezkuntza eta euskara zinegotzia, Surra Irratizale taldeko ordezkariekin. Taldeak 59 bazkide ditu.

go da, jarraian. Beste urte batzuetan 1.000-1.400 kontaktu egitea lortu dute; hale-re, lehendabiziko urtean, 1.600 lortu zituzten, orain arteko errekorra, eta aurten kopuru hori gainditu nahi dute. Hori dela eta, kontaktu laburrak izango dira egingo dituztenak. Ander Alber-

di taldeko idazkariak esan digunez, kontaktu hauen bitartez, "Bergarako izena ahalik eta urrunen zabaldu nahi dugu, bai Estatu mailan, bai Europa mailan eta, zergatik ez, eguraldiak eta propagazioak laguntzen badi, mundu mailan ere bai". Eguraldi aldetik, behintzat,

ez dute arazorik izango, ona iragarri baitute.

Orain arteko edizioetan Agarre-buruko tontorretik egin izan dituzte kontaktuak, baina aurten Euskal Autonomi Elkarte hiru lurraldeetatik egin nahi dituzte, hau da, Urkiola, Gorbea eta Arantzazutik. B

**ETXAGI**  
**JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK,  
EGUNEROKO MENUA,  
GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12



Amillaga, gasolindegia ondoan. Tf.: 943 76 57 34

**ZABALETAK**  
**ERROTULOAK**

**Mota guztietako errotuloak**  
**Fatxadak, eskapareak...**

**AGOITZ**  
**Tapizdenda**

Leizariako San Lorenzo 25  
BERGARA  
Tf.: 939 84 57 47

**ileapaindegia**  
**eder gela**

**—disdira—**

Masterreka 7 • Tf. 943 76 00 55



**LASAGABASTER**

**ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.**

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55



Urriaren 25ean izango dira Hauteskunde Autonomikoak.

ARTXIBOA

## Euskal Herritarrok taldeak 750 sinadura batu ditu Bergaran

### Alkatea eta Tomasa Zabaleta EAJren zerrendetan

**Euskal Herritarrok** taldeak urriaren 25ean izango diren Legebiltzarrerako Hauteskundeetarako 750 sinadura batu ditu Bergaran. Euskal Autonomi Elkarte osoan 18.250 sinadura lortu behar zituzten hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko eta 45.602 lortu dituzte: 22.630 Bizkaian; 17.985 Gipuzkoan eta 4.987 Araban.

Bestalde, hauteskundeetarako hautagaien zerrenda

osatu du dagoeneko EAJk. Legebiltzarrerako Gipuzkoako hautagaien zerrendan bi bergarar daude: Victoria Gallastegi alkatea eta Tomasa Zabaleta San Joxepe jubilatuen elkarteko presidentea. Biak zerrendetan nahiko atzean daude eta ez dute hautatuak izateko aukerarik.

Esan dezagun, horretaz gain, hauteskundeetan botoa korreoz eman nahi du-

tenentzat bulegoa ireki duela Bergarako EAJk. Bulegoa Batzokian jarri dute, izan daitezkeen duda, argibide edo eginbeharrak argitzeko. Astelehenetik eguakitzera arte izango da zabalik eta hau izango da ordutegia: 12:00etatik ordu batera eta 19:00etatik 21:00etara. Hasi berri duguna hauteskunde ikasturtea izango da, datoren maiatz inguruan udaletakeak izango baitira. B

## Orfeoia- ren 75. urteurreneko ekitaldiak gaur aurkezten dira

**Bergarako** Orfeoia-  
ren 75. urteurreneko ospakizunak aurkeztuko dira gaur, eguakitzan, 20:15etan Udaletxeko Pleno Aretoan. Ospakizun-ekitaldiak urte osoan zehar izango dira eta egitaraua aurkeztuko da gaur. Era berean, Orfeoia-  
ren historiari buruzko azalpen laburra emango da 75. urteurreneko ekitaldiak iragarriko dituen kartela, Ricardo Azkargorta pintoreak egindakoa, aurkeztuko da. Amaieran, emanaldia eskainiko du Orfeoia-  
k.

## Egoitza berritu eta zabaldu du CCOOek

**Bergarako** CCOOek Arruriaga 13ko egoitzan obrak egin ondoren, lokala egokitu du eta berriz ere aholkularitza juridikoa eskainiko die interes duten langileei. Sindikatuaren zatiketa-  
ren eta Ezker Sindikalaren sorreraren ondoren, egoera piskanaka normaltzen ari dira CCOO-  
koak.

# Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

# LONBIDE OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5

BERGARA

☎ 943 76 10 57



Paper pintatuak - Pinturak

# A. ZANGITU

ORDUTEGI BERRIA:  
8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 943 76 19 54 BERGARA  
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE

# Astelehenean zabalduko dira barruko igerilekuak

**Datorren** astelehenean, irailak 21, zabalduko dira barruko piszinak eta, beraz, kanpokoak itxi egingo dira, udako denboraldiari agur esanez. Astebururako eguraldi ona iragarrita dago, hortaz, azken eguzki izpiak hartzeko aukera izango da kanpoko piszinetan.

Barrukoak goizeko 7etatik gaueko 9ak arte izango dira zabalik astelehenetik eguakitzera eta goizeko 8etatik arratsaldeko 7ak arte, zapatu, domeka eta jai egunetan. "Aurtengo urtarrilean hasi ginen goizeko 7etan zabalitzen, jendeak hala eskatuta, eta erantzun ona izan dela kontutan har-

tuta, berdin jarraitzea erabaki dugu" esan digu Yosune Linazisorok, Udal Kirol Zerbitzuko arduradunak. Ekain, uztaile eta abuztuan 36.355 lagun sartu dira pis-

zinetara txartelarekin: 9.241 ekainean, 16.933 uztailean eta 10.181 abuztuan. Bestalde, ekain eta uztailean 4.323 sarrera eta 10 bainutarako 270 bono saldu dira. **B**



Astebukaera honetan izango da kanpoko piszinak erabiltzeko azken aukera.

## La Caixak bulegoa zabaldu du Bidekurutzetan

**Martitzenetik** zabalik dago La Caixako bulego berria Bidekurutzeta 10ean, lehen Banco de Bilbao zegoen tokian. Abuztu amaieran molotov koktelekin erasotu eta guztiz kiskali zuten Barrenkaleko bulegoko obrak amaitu bitartean, hiruzpalau hilabete, egongo da Bidekurutzetan La Caixako bulegoa. Telefono zenbakia lehengo bera izango da, hau da, 943 76 41 16. La Caixako arduradunek BERRIGARAFI esan diotenez, atentatuak eragindako kalteak 30 bat milioi pezetakoak izan dira.



Eguneko menu TRADIZIONALA

Eguneko menu ITALIARRA

Italiar sukaldaritza

Pizzak

URTEBETETZE MERIENDAK

# ETXERA ERAMATEKO

pizzak, lasagnak, kaneloiak, kalabazin beteak...

943 76 72 00ra deituz!

Artekalea 1, BERGARA.

# Berrigara

335 zenbakia.  
1998ko irailaren 18a.

**Errotalde Jauregia, 20570 Bergara**  
**Telefona: 943 76 03 97**  
**Faxa: 943 76 29 77**  
**E-mail: berrigar@sendanet.es**  
**Argitaratzailea: JARDUN Elkarte**

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate.  
**Erredakzioa:** Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.  
**Publizitatea:** Kristina Romero.  
**Harpidetza:** Itziar Kortabarria.  
**Testuen zuzenketa:** Estepan Plazaola, Alex Labaien.  
**Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkorobereziabar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodríguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.  
**Kolaboratzaileak:** Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.  
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:** Gertu Koop, Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.  
Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Erakunde hauen laguntza:**



Bergarako  
Udala



Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia



Eusko  
Jaurlaritzako  
Kultura saila

## gutunak

**Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).**

### BERGARA HIL DA

Guztionez jakinekoea da Bergaran ez dugula hondartzarik, pantanorik edota jai askorik abuztuan. Hala ere, bada Bergaran geratzen denik; betikoa esanez: "Herrixa zaintzen geratuko naiz".


Gazte askorentzat abuztuan zer egin buruhauste galanta bihurtzen da. Pisinetara? Nola, 500 PTA ordainduz? Ez dago edonoren posibilitateen barne. Kiroldegira? Ondo da. Goizeko 10:00etan lagunekin geratu eta kiroldegira iritsitakoan: "oporregatik itxita abuztu osoan". Beno ba, berriz kalera bueltan eta... Liburute-gira? Zorte apur batekin abuztuaren 17tik aurrera joanez gero, eta goizez, noski, zabalik aurkitzeko aukera izango duzu. Bestela, ba, betikoa: parkera, tabernetara edo beste ezer gehiago eskaintzen duen herriren batera.

Uste dut gauza hauek guztiak aintzakotzat hartu beharko genituzkeela Ber-

garako gazteak kritikatzera-koan. Ez al litzateke Udalaren jarrera salatu behar? Oso "dotorea" geratzen baitzaie "Udako Kirol Kanpaina" edota "Udazken Kulturala" gisako lemekin ahoa betetzea. Badirudi abuztuan kulturari ere oporrak ematen zaizkiola. Horregatik, nire eskerrik beroenak Udalari Bergara herri aspergarri bat bihurtzen uzteagatik.

Z.A. (NAN: 72.460.635)

## tira biraka: bittor rodriguez



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

## Aurreztutako dirua burtsan edo inbertsio fondoetan inbertitzen duzu?



**Castor Urisabel**

Zertxobait aurreztu dudanean inbertsio fondoetan sartu izan dut. Nik ez dakit asko gai horiei buruz; nahiago dut gauza horrek beste batzuen esku uztea.



**Jesusa Arriaran**

Ez dut batere aurreratzen. Alarguna eta ematen duten pentsioarekin... zer geratuko zait, ba? Egia esan, burtsako kontuak ez ditut gehiegi jarraitzen.



**Iñaki Acebo**

Jubilazio plan bat egina daukat baina, oraingoz behintzat, inbertsio fondoetan edo burtsan ez dut inbertitu. Gainera, burtsa nola dabilen ikusita...



**Adelaida Aguado**

Ez zaigu horrenbesterako heltzen. Eguneroko gauzak ordaintzarekin (jana, ikasketak etab.) nahikoa daukagu.



**Juan Manzano**

Ez, nahikoa daukat egunerokoarekin. Ez dut gehiegi ulertzen; inbertsio haundietarako beharbada bai, baina langileontzat ez zaizkit errentagarriak iruditzen.



**Esther Uribeberria**

Ez daukat aurrezteko ere... Hori da nire arazoa, dena gastatzen dudala. Inbertsiorik ez dudanez, burtsaren inguruko informazioa gutxi jarraitzen dut.


**Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 943 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.**

**Pakita Lopezek** mezu bat utzi digu aste honetan kontestadorean. Pakita, Zubiaurre aldean bizi ei da eta sail honen bitartez hainbat gaztek euren motorrekin ateratzen duten zarata salatu nahi du. Askotan, gauez, lotan ari dela, motorren zaratarekin esnatzen da Pakita eta motor txiki horiek horrenbeste zarata ateratzea legez kanpo ez ote dagoen galdetu nahi du. Kaskoarekin gertatu bezala, legeak zarataren kasuan ere neurriak hartu beharko lituzkeela aipatzen du eta Udaltzaingoari motorrek sortzen duten kutsadura akustikoaren aurrean zerbait egiteko eskatu nahi dio, guztion onerako izango delakoan.

■ ikuspuntua: **miguel angel alvarez**

### Iraila

Nire bizitzan beti izan da iraila hil berezia eta behin baino gehiagotan erabakiorra. Ikasle garaian azterketa aldia zen; bigarren aukera izaten genuen urtean zehar egin gabekoa salbatzeko edota udan egindakoa islatzeko. Gaizki ateraz gero, depresioak eta horrelakoak, sarritan iraila ahalegin hauek alferrik izaten ziren eta. Dena den, askok eta askok fetxa hauetan amaitu zituzten euren ikasketak eta, beraz, arrazoi bat ospakizun handi bat egiteko. Irakasle bihurtu nintzenean, eta aldi luze batean, data hauetan erabakitzaren ziren gure lan baldintzak: non, zein mailatan, zein ordutegirekin eta abar. Beti urduritasunaz eta kezka. Une txarrak gehienetan.



txarrak denborarekin baloratu beharko ditugu, hasiera batean aldekoa izan arren. Baina geroko irailak ez dira izango lehengoan modukoak.

Horretaz gain, aurtengo hau mota guztietako albistez beterik etorriko zaigu. Hauetako asko, betiko moduan, ezin txarragoak; beste batzuk, berriz, onak eta itxaropentsuak, Lizarran hainbat alderdi politiko eta erakundek sinatutako akor-

Alde honetatik ikusita, aurtengo iraila izan liteke hauetako azkena; izan ere, hemendik aurrera, unibertsitatean izan ezik, iraila azterketarik ez da egongo. Erabaki honen alde onak eta

dioa, esaterako; nahiz eta nik nahi bezain orokorra ez izan, bizi dugun gatazka politiko honetatik ateratzeko bide berria izan daiteke. Ea egia den.

Bukatzeko, aurtengo hil honetan ere urteurren triste bat "ospatzen" da: duela 25 urte Txileko ejerzitoak, Pinochet jeneralaren ardurapean, estatu kolpe odoltsu eta basatia gauzatu zuen. Urte ilunak azkenengo 25 hauek txiletarrendako, baina orain arte nozitu beharrekoa gogorra izan bada ere, ez da makala aguantatzea gertatzen ari zaiena, alegia, nola inongo lotsarik gabe eta hango eta hemengo hainbat erakunde politiko eta estaturen oniritziarekin prestatu duen Diktadoreak bere jubilazioa, baita bere inpunitatea bermatu ere behin betiko senadore bihurturik, Txileko parlamentua zikinkeriaz beteaz, hildako eta desagertutako senideen aurrean. Irail iluna. B

■ asteko menua: **gaspar jatetxea**

# Piku tarta



ELENA eta LUIS EZENARRO  
*Gaspar jatetxeoak*

## OSAGAIAK (4 laguentzat)

- Kilo erdi hojaldre
- Kilo erdi pastel krema
- 18 piku gutxi gorabehera
- 150 gramo albtxiku mermelada

## PRESTAKETA

- Hojaldrea tiratu eta sagar-tarta molde bat egin; pastel-kremaz bete; pikuak zuritu, erdibitu eta gainean ipini.
- Arrautzaz bustitako pintzelarekin pikuak igurtzi.
- Labean sartu 225-250 gradutara, eta 20 minutuz eduki.
- Labetik atera eta hozten laga moldea kendu aurretik
- Mahaira ateratzeko, albtxiku mermelada kapa mehe batekin estali.

■ adituen esanetan

# Burtsako krisia

MARI JOSE PEREZ, *finantza pertsonalen aholkularia*

Oraingo moduko ezegonkortasun sasoi honetan, bada zuzentze baten ala ziklo aldaketa baten aurrean ote gauden zalantzan jartzen duen jendea. Espainiako burtsak, %27ko jaitsiera izan du uztailetik hona. Krisiak ustekabeen harrapatu bagaitu eta oraindik saldu ez badugu, egokiena geldu egotea eta, gehenez, epe gutxira errekupeazio gaitasun gutxi duen baloreren bat bazterzea izango litzateke.

Bestalde, dirua izatekotan, erosteko garaian gaude. Dena den, oso selektiboak izan behar gara, hemendik hila-bete batzuetara balore gehienek uztaileko nibelak errekupeeratuko baitituzte.

Erosteke gomendio honek ez du esan nahi presaka jokatu behar dugunik, merkatuak oraindik ere beste zigorren bat jaso baitezake. Baina errekupe-razioaren hasiera gertu dago.

Krisialdi hauek erosteko aukera historikoak izaten dira, merkatuaren aurreko krisialdiak aztertuz gero, beti errekupeazio bat eman dela ikus dezakegu eta. Horretaz gain, krisialdi honek bestetan baino egoera hobean hartu gaitu. Minimoan erosi eta maximoan saltzearen teoria utopia baino ez da. Kotizazioak atzera egiten duenean akziorik ez duenak, burtsak gora egiten duenean ere ez ditu izango. **B**

■ bergarako gordailutik

## ELURZULOAK Imanol Sorondo

Orain 350 urte egin zuen Bergarak elurzulo bat, udaran izotza edukitzeko; ez dakit lehenagotik besteren bat egin ote zeukan. 1642. urtean Elkorbarrutiatar Martin Perez alkateak eta Elosun dagoen Narbaizako nagusiak, Narbaizatar Juan Perezek, tratatu bat egin zuten; horretarako herriak Narbaizari lur sail bat eman zion, honen baseritik Santutxuraino doan bidearen ertzean dagoen bat. Beraz, elurzuloaren jabe zen Narbaiza eta berak mantendu eta zaindu behar zuen; udan izotza eramaten zuen herrira. Baina 1670. urtean Udala beste elurzulo bat egiten hasi zen, eta Joanen ondorengoak, Narbaizatar Domingo apaiza buru zutela, Korrejidorearen aurrean kexatu egin ziren elurzulo berria tratuaen aurka zihola adieraziz.



Alkate jaunak, berriz, Narbaizatarrek ostatua eta oheak ipini zituztela jendearentzat eta zeukaten ganadu eta lanekin ez zutela behar bezala erantzuten elurzulo eta izotz kon-tuan.

Geroago, 1737. urtean, Bergarako jesuiten ikastetxea zen Elosun dagoen Benta eta bere elurzuloetako nagusia. Jesuitek zeukaten orduan herrian izotza ipintzeko erantzukizuna. Hiru elurzulo, behintzat, bazeuden; ez dakit hauetako bat izango zen, baina Labeagan ere bazeogen.

Irizartarren artxibategian badago Elosun XVII. mendean egin behar zen elurzulo baten marrazkia, bere neurri eta gutzi.

Behin, Agarreko aitona erakutsi zidan Elosumendiko gainean zegoen elurzulo hauetako bat. **B**



## Sellako jaitsieran

Udazkena gertuan daukagun egun euritsu hauetan gustora ikusten dira udako argazkiak. **Beti-Bustiko** lagunek bidalitakoa da goikoa. Argazkian agertzen direnak **Sellako Nazioarteko Piragua Jaitsieraren** 62. edizioan izan ziren joan zen abuztuaren 8an. Partaideez gain (1.300 inguru) beste 1.000 zaletu inguruk Arriondas eta Ribadesella arteko 14 kilometroko jaitsiera bete zuten. Beti-Bustikoek bi ordu eta erdi inguru eman zituzten arraunean. Beti bezala, giro ezin hobea izan zen

probaren bezperan Arriondasen eta hurrengo egunean Ribadesellan eta Beti-Bustikoak bueltatzeko gogoz itzuli ziren Asturiasetik. Argazkian, ezkerretik eskumara, **Alex Duran, Javier Uribesalgo, David Reglero, Alex Zangitu eta Imanol Elkoroberezibar.**

## Kartel lehiaketan irabazle

**Juan Jose Altuna Akizuk** irabazi du urrian izango den kultur hamabostaldia iragartzeko **San Joxepe jubilatuen elkarteak** antolatutako kartel lehiaketa. Aurtengo ediziooko gaia "Beti dago pauso gehiago ematea" zen eta Altunak kostaldeko paisaia bat margotu du, hondartzan norbaitek lagatako arrastoak ikus daitezkeelarik. Sei lan aurkeztu ziren lehiaketara eta bergararrak 75.000 pezetako saria eskuratuko du sari gisa. Bere lana urriaren 13tik 31ra bitartean jubilatuek antolatuko duten kultur hamabostaldia iragartzeko erabiliko da.





## Euskal Herriko txapelduna



**Jesus Mari Plazaola** arrasatearrak zapatuan Otxandion jokaturako **Euskal Herriko Artzain Txakurren XXXII. Lehiaketa** irabazi zuen. Plazaola Bergarako Udaleko mendiko brigadako langilea dugu eta zapatuan lan bikaina egin zuen "Artzai" txakurrekin. Azkeneko txandara heldu ziren hiru artzainek ardi guztiak sartu zituzten eskortan eta Plazaolak oso alde txikiarekin lortu zuen txapela, **Jose Urien** bizkaitarra eta **Aurelio Llanera** arabarraren aurretik. Domekan oraindik irabazterik izan ez duen Oñatiko nazioarteko proban hartuko du parte Plazaolak.

# Normaltasuna eta jai giroa



**Barazki, fruitu, lora eta gazta lehiaketan 50 bat baserritarrek hartu zuten parte.** Barazkien sailean, Martuteneko Jose Maria Zabalegik irabazi zuen; bigarren, Antzuolako Lapatza baserriko Tomas Larrañaga (Ordiziko aurtengo ferian irabazle izan da) geratu zen eta hirugarren, Mercedes Urien uberarra. Bergarar onenaren saria, Maria Egizabal uberarrantzat izan zen. Fruituetan, Gatikako Jose Etxebarria izan zen garraile; bigarren saria, Antzuolako Bidaurre baserriko Kontxi Izagirrek jaso zuen eta hirugarrena, Santos Oñabeitia berriztarrak.

**J**oan zaizkigu San Martinak: feria, danborradak eta suzko erroberak. Aurten San Martin aste barruan tokatzen zela eta, bertakook disfrutatutako ditugu batez ere, nahiz eta zapatu gauean kanpotar ugari hurbildu.

Ohi den moduan, aurten ere zapatu goizeko **San Martinetako feriak** ikusmin handia sortu zuen. San Martin plazan eta Seminarioan jende asko ibili zen.

Gazten lehiaketan, Jose Jauregi antzuolarrak irabazi zuen eta bigarren eta hirugarren sariak, Arantza Seguro la legazpiarrentzat eta Josu Ostiza urdiaindarrarentzat izan ziren; bergarar onena, Begoña Abarategi izan zen. Azkenik, lore moztuen lehen saria, Begoña Arteaga uberarrak irabazi zuen eta etxeko lorena, Murinondoko Fidela Gabilondok.

Bestalde, **Bedelkarreko harakinek** zapatu gauean antolatutako **txekor-janean 335 lagun** bildu ziren -sekula baino gehiago- eta primeran afaldu zuten, bertan izan

zirenek esan digutenez. Giro aparta izan zen, gainera, musika eta guzti. Ugasarri baserriatik ekarritako txekorra, egun guztian zehar prestatzen aritu ziren Seminarioan Eloorrioko Gazeta elkarteak eta puntua ondo hartu ziotela esan digute. Bestalde, Bedelkarrek antolatutako **zoketa, 20.030 zenbakiari** egokitu zaio; ordezkoa, 161 zenbakia da. Saria txerri bat edo 50.000 PTA da.

Afalostean **La Parranda** taldekoek alaitutako dantzaldia izan zen San Martin plazan. Jendea dantzarako gogoz bazegoen ere, gau guztian ez zuen atertu eta gutxi izan ziren plazan bildutakoak; pena bat.

**Moises Azpiauren orimenez** zapatu gauean antolatutako **dantza sueltoko XIV. edizioa** ikusteko ez zen jende asko bildu Udala Pilotalekuan. Halere, bertaratuek gustora jarriatu zituzten fandango eta arin-arinak. **11 bikotek** hartu zuten parte txapelketan eta Kimetz eta Eneritz azkoitiarrek eraman zuten lehen saria. Bigarren, Aitzol Ena bergararra eta Nagore Ziganda hermaniarra







# ngusi San Martinetan



geratu ziren; hirugarren, Azkoitiko Azpitarte anai-arrebak; laugarren, Asier Ena eta Irantz Lizarralde bergararrak eta bosgarren, Ordiziko Juarez anai-arrebak. Bergarar bikote onenaren sari berezia, Asier Ena eta Irantz Lizarraldek eraman zuten. ETBk zapatuko emanaldiko irudiak hartu zituen eta egun haueko batean botako dituzte.

Bestalde, domeka goizean jokotutako **XXV. Pintura Lehiaketara 25 lagun** aurkeztu ziren -eguraldi kaskarra zela medio beste urte batzuetan baino gutxiago- eta Eluska Zabalo arrasatearrak irabazi zuten lehen saria (80.000 PTA eta trofeoa). Bigarren saria, 60.000 PTA eta trofeoa, Mikel Garate azkoitiarrak jaso zuen eta hirugarrena, 40.000 PTA eta trofeoa, Aitor Etxeberria mendarotarrak. Bergarar onenaren saria, 35.000 PTA eta trofeoa, Mari Paz Alustizarrentzat izan zen.

Bestalde, 23 urtetik beherakoen artean, lau lagun aritu ziren lehian eta honako hauek izan ziren sarituak: lehen saria, 35.000 PTA eta trofeoa, Usoa Mendikute bergarararentzat; bigarren saria, 15.000 PTA eta trofeoa, Irune Zubizarreta eibartararentzat eta hirugarrena, 10.000 PTA eta trofeoa, Eba Irureta azkoitiararentzat.



Sari banaketa domekan egin zen Kultur Etxean eta, ondoren, aurkeztutako lanak ikusgai jarri ziren bertako erakusgelan; domekara arte izango dira ikusgai.


Martitzen eta eguasteneko **nagusien eta haurren danborradak** ikusgarriak izan ziren. Nagusienetan, Aritzeta, Xamatx, Artatse, Urdinak, Zuloa eta San Joxepeko danborroek hartu zuten parte; horiekin batera, Udal Musika Bandak, neska banderadunek eta Lasai-Tokiko sukaldariek. **200 bat lagun** guztira. **San Joxepe** jubilatuen elkartekoak aurten lehen aldiz aritu dira danborradan. Horixe izan da aurtengo nobedadeetako bat; bestea, Kukumakoek egindako karroza: baserri bateko sukaldea.

Martitzen arratsaldean **"Txondorrek, karobiak, elurzuloak"** liburua aurkeztu zen Udaletxean. Amaia Olañeta eta Argiñe Urkiola liburuaren egileekin batera, honako hauek izan ziren ekitaldian: Jerardo Elortza dokumentazio arduraduna, Victoria-



no Gallastegi alkatea eta Xarles Videgain euskaltzain urgazlea eta lexiko berezia biltzeko aterako diren lau liburuetako aholkulari taldekoa. Azken honek egileek egindako lan zientifiko eta zehatza goraiatu zuen eta liburu benetan polita zela esan zuen.

Aipatzekoa, azkenik, **Umore ona elkartek 50 urte** bete dituela aurten eta urrezko ezteiak ospatzeko bazkideek bazkaria egin zuten eguaztenean. Udal Musika Bandak ere omenalditxo eskaini zion elkarteari eguazten eguerdiko emanaldian. **B**



# Kalitateko irakaskuntzan aitzindari

## Miguel Altunak ISO-9002 ziurtagiria jaso du

**Bergarako Miguel Altuna Institutuak ISO 9002 kalitate ziurtagiria jaso zuen joan zen irailaren 4an Donostiako Miramar jauregian. Tolosa eta Martuteneko Lanbide Heziketako institutuekin batera, Estatu osoan kalitate ziurtagiria jasotzen duen lehendabiziko ikastetxea da Bergarakoa.**

Lanbide Heziketaren mundua indartu nahirik, Gipuzkoako 14 ikastetxetako zuzendariak biltzen zituen Ikaslan elkarteak sortu zen orain dela bost urte Bergaran. Irakaskuntza munduan kalitatea ezarri nahirik, Foro Gipuzkoa XXI elkarteko Eugenio Ibarzabal eta Ricardo Etxepare beraiekin bildu ziren zer egin zitekeen aztertze-ko. Foroak Lanbide Heziketako ikastetxeak aukeratu zituen enpresa munduarekin harreman handia dutelako. Miguel Altunaren kasuan aho batez erabaki zen plangintzan buru belarri sartzea. Lehenbizi, 1994an, ikastetxetako zuzendariak 40 orduko ikastaro intentsiboa egin zuten Daniel Meade Monterrey-ko (Mexiko) Unibertsitateko kalitate arduradunarekin eta urte horretan hainbat irakaslek (tartean Miguel Altunako 11k) udako ikastaro bat egin zuten Franklin Shargel Estatu Batuetako irakaslearekin. Hasieran zentru publiko zein pribatuak murgildu ziren proiektuan, baina batzuek eta besteek bide ezberdina hartu zuten. Foro Gipuzkoa XXI elkartek, 1996an, sare publikoko zortzi ikastetxeetatik lau aukeratu zituen proiektu piloto bat egiteko,

aukeratutakoen artean Miguel Altuna zegoelarik. Jaurlaritzako Heziketa Sailak ere bere laguntza eskaini zuen.

Hitzarmena bi urterako sinatu zen eta lau ziren hasierako helburuak: eskolaren misioa (kalitatea munduak be-

rezko terminologia dauka) egitea, hau da, hezkuntza proiektua gauzatzea; bigarrenik, zentroa autoebaluatzea europar modeloari jarraituz; hirugarrenik, ISO 9002 ziurtagiria lortzea eta, azkenik, zentroaren esperientzia beste ikastetxeetara zabaltzea. Gaur egun, 34 ikastetxe dira kalitatearen inguruan lanean, 12 ISO ziurtagiria jasotzeko bidean direlarik.

### Hezkuntza proiektua

Miguel Altunaren kasuan, zentruko 20 irakaslek, Eugenio Ibarzabalen laguntzaz, ikastetxearen hezkuntza proiektua landu zuten lehenbizi. Bertan, besteak beste, zera jasotzen da, ikastetxeko sarreran irakur daitekeen: "azkenengo helburua hau da: ikasleriaren giza garapen osagarria zein ikasketa maila gelditu gabe hobetzen duen ikastetxea lortzea. Herri eta nazioarteko ikasketen elkartrukaketei zabalik dagoena eta, bide batez, inguruari aukera hobereana emateko gai izango dena: ikasleriaren zein irakasleriaren alde pertsonala eta profesionalaren garapena, eskubideak errespetatuz, elkartasuna landuz inguru aldakakorrari aurre egin ahal izateko. Gizartearen lan beharrei erantzuteko ahalmena. Inguruko enpresentzat ikerketa tokia izatea".

Autoebaluateta egiteko orduan MCCko modeloari jarraitu zioten, Arra-

Tolosa eta Martuteneko Lanbide Heziketako institutuekin batera Miguel Altuna Institutua kalitate ziurtagiria lortzen duen lehendabiziko ikastetxetxea izan da.

MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR





Zuzendariaren hitzetan, eskola guztia inplikatu izan da etengabeko hobekuntza proiektuan. Argazkian, ezkerretik eskumara, Rosana Gutierrez, Jose Mari Larrañaga eta Mertxe Laskurain, irailaren 4an Donostiako Miramar jauregian jasotako ziurtagiriarekin.

MIGUEL ANGEL ELKORBEREZIBAR

sateko Eskola Politeknikoaren lagun-tzarekin. Helburua zera zen: ikastetxea zein egoeratan zegoen aztertu eta hobekuntzarako bideak markatu. Aldi berean, ISO ziurtagiria lortzeko bidean, aukeratutako ikastetxe bakoitzeko hiru lagun astero biltzen ziren Eugenio Ibarzabalekin eta ISOren inguruko aholkulari batekin. Enpresa munduan erabiltzen den kalitateari buruzko testu orijinala irakaskuntzara moldatu behar izan zen eta horrek lan dexente eman zien, Jose Mari Larrañaga Miguel Altunako zuzendariak azaldu digunez, "eskola estrukturatzeko oso erraminta indartsua lortu dugu. Irakaskuntza munduan lan pilo bat egiten da baina, enpresekin konparatuz, ez daukagu ohiturarik gauzak gordetzeko eta idazteko eta lan hori beharrezkoa zen. Orain ordena bat, administrazio osoa sistematizatzea lortu dugu eta oso lagungarria izango zaigu. Egia esan, ordu pilo bat sartu behar izan ditugu, baina erronka oso positiboa izan da guretzat".

Eskola guztia inplikatu behar izan da proiektuan. Jose Mari Larrañagaren hitzetan, "eskola guztiak hartu du parte, hasi atezainetik eta garbiketa ema-

kumeraino. Horrelako pizgarririk ez da sekula egon eskolan eta gure arteko harremanak sendotzeko ere baliogarria izan da. Oso gai interesgarria izan da. Bakoitzak bere lana izan du eta oraingo erronka gure lana ondo egin eta etengabeko hobekuntzan jarraitzea izango da". Proiektu honek milioi bat pezeta inguru suposatu dio institutuari. Orain, AENOR izango da egiten den lanaren jarraipena egingo duena. Larra-

datozenek lanerako erraminta egokia izango dutelarik".

### Etengabeko hobekuntza

Miguel Altunako edifizio berrian Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak emango dira eta zaharrearantz ziklo formatiboak, azken hau Goi Mailako Lanbide Heziketako Berariazko Miguel Altuna Institutua bilakatuz. Gi-

***"Ikastetxeko langile guztiok inplikatu gara proiektu honetan eta gure arteko harremanak sendotzeko ere baliogarria izan da"* JOSE MARI LARRAÑAGA**

ñagak argitzen duenez, "AENORek egingo duena ez da kontrola, baizik eta egiten denaren konprobazio bat, besterik ez. Eguneroko lanean gure gaiak garbi izatea lortuko dugu eta hobekuntza etengabearen bidean erronka nagusia gure lana ondo egitea izango da. Bestalde, hemendik aurrera sortzen diren hobekuntzak landutako dokumentazioan integratuko dira, gure atzetik

puzkoan horrelako zazpi ikastetxe dira gaur egun. Bertan ikasleei zein langileei klaseak emango zaizkie. ISO ziurtagiria jaso berri, ikasleek ez dute gauetik egunera sekulako aldaketa nabarituko. Larrañagaren arabera, "Eskolako lanean gauzak derrigorrez hobetzen joango dira bidea markatuta daukagulako. Ikasleek ere igarriko dute hobekuntza hori".

**IRUDI**  
Erlojudenda  
Bitxitegia  
Ibargarai 2  
943 6 51 65



**KORTA-ZAR**  
Txokolategia

Pintxo eta ogibarteko  
espezialitatea

Barrenkalea 16 ☎ 943 76 20 62

**ARREGI**


Eraikuntza  
materialeak

Billegia Tellerian, Labegaraietan.  
Tf. 943 76 27 93

# Eskoziako Tryst 77 eskubaloi taldea zapatuan Bergararen aurka

**Zapatuan Labegaraietan arratsaldeko zazpi eta erdietan hasiko den eskubaloi txapelketan atzerritarrak izango ditugu. Glasgowko Tryst 77 taldea bertan izango da. Torneoan arituko direnak, talde eskoziarra, Gasteizko El Pilar eta Lijoren mutilak dira.**

Lehendabiziko 40 minutako partidua, Tryst 77 eskoziar taldeak eta Gasteizko El Pilarrek jokatuko dute. Partidua galtzen duenak Bergararen kontra jokatu beharko du. Finala, aurreko partiduan garaile irten denaren eta Bergararen artean izango da. Partidu guztiak jarraian jokatu dira. Txapelketaren amaiera zazpiak inguruan espero da. Sari berezirik gongo ez den arren, txapelketa ondoren afari bikaina izango dute, San Migelpe elkartean.



Aritzek eta Kepak oso gustora jardun dute Britainia Handiko taldeetan.

Eskoziarrek interes eta gogo berezia erakutsi dute Bergarara jokatzera etortzeko. Britainia Handiko lehen mailan ari dira jokatzeko unean honetan. Bi liga txapelketa irabazi dituzte eta 1992an, Europako Kopa jokatu zuten. Bitxia bada ere, eskoziarren taldean, Aritz Aranguren eta Kepa Mendibil bergararrak daude.

Aritz duela bi urte abiatu zen Ingalaterrara. Bergarako eskubaloi taldean 7 urte ibili ondoren, atzerrira joan arren, eskubaloiaren jokatzeko gogoia erakutsi eta Manchesterreko taldean hasi zen. Kepa, Glasgown ikasten zegoenez eta Aritzen laguntzaz, Glasgowero Tryst 77 taldearekin harremanetan ipini eta bertan aritu izan da orain arte. Biak elkarren aurka jokatu dute Britainia Handiko ligan. Oraingoan, elkarrekin, taldekide ohien kontra arituko dira. B

## Kepa eta Aritz Bergarako taldeari irabazteko amorratzen

**Galdera:** Interes handia behar da atzerrira joan eta eskubaloi talde baten bila hasteko.

**ARITZ ARANGUREN:** Kanpora ikastera joan eta bertako unibertsitatearen eta bertako eskubaloi federazioaren laguntza izan nuen taldea bilatzeko garaian. Ikasten egon naizen bitartean Manchesterreko Salford United taldean aritu naiz. Dagoeneko amaitu ditut eta orain Winchesterren nago lanean, beraz Manchesterreko taldea utzi egin behar izan dut. Lau ordutako ibilbidea dago batetik bestera eta ez daukat entrenamenduetan izaterik. Orain, Winchester inguruko talderen baten bila nabil.

**KEPA MENDIBIL:** Niri ere antzerako zerbait gertatu zait baina Aritzen bitartez jarri nintzen taldearekin harremanetan. Manchesterreko taldea, Glasgoweren kontra jokatzera etorri zen. Garai hartan Aritzek Salford United taldean jokatzeko zuten. Ni partidua ikustera joan eta partidu amaieran, Glasgowero Tryst 77 taldeari, Bergarako eskubaloi taldekide bat nin-

tzela esan zien Aritzek. Harrez gero, entrenamenduetan hasi eta gaur arte.

**G.** Bi txapelketa irabazi ditu Tryst 77k. Maila handia dute?

**K.M.** Ezin daiteke hemengo eskubaloiarekin parekatu. Maila askoz baxuagoa da. Lehen mailan dauden arren, Britainia Handian ez dago eskubaloiaren jokatzeko zaletasunik. Kirol nahiko ezezaguna da. Europako kopan ere egon ziren Austriar, 1992an baina ez zuten gauza aipagarriarik egin. Askotan izan dira Europan baina norberaren poltsikotik ateratzen dute dirua.

**A.A.** Manchesterrekoak ere Hego Afrikako Common Wealth txapelketa jokatzera joateko aukera izan genuen baina ez genuen dirurik lortu. Eskubaloiak indarririk ez izatean, diru laguntzak ere gutxi dira eta aukerak, murrizak. Askotan guk geuk ordaindu behar ditugu seguruak eta horrelakoak.


**G.** Zapaturako emaitza.

**Biak:** Dudarik gabe, guk irabaziko dugu. Tryst 77. B



# JAKIN

a k a d e m i a



## INFORMATIKA

OFIMATIKA

AURKEZPEN  
GRAFIKOAK

PROGRAMAZIO  
HIZKUNTZAK

INTERNET

KONTU ETA  
MERKATAL GESTIOA

- Nominak eta gizarte segurantzza
- Kontabilitatea
- Fakturazioa

MEKANOGRAFIA

**ENPRESARITZA** eta  
**ADMINISTRARITZA**  
**ALORREKO**  
klase partikularrak

TALDE MURRIZTUAK • KLASEAK GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ

Santalaitz 6 • Tf. 943 76 00 68 BERGARA / Arregitorre 6 • Tf. 943 74 08 95 ELGOIBAR

# Bertso jaialdia 98

Irailaren 19an

Novedades aretoan 22:30etan

Gai jartzailea  
Joxerra Gartzia


Aldez aurretik  
sarrerak ohizko  
tokietan salgai.

Aldez aurretik:  
800 PTA / Takilan: 1.000 PTA.

Bertsolariak

Sebastian Lizaso  
Andoni Egaña  
Ion Sarasua  
Jesus Mari Irazu  
Ainhoa Agirreazaldeg  
Maialen Lujanbio

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Bergarako Udala



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

# Oso erantzun ona izan du Udalaren kirol eskaintzak

**Udal Kirol Zerbitzuak egindako kirol eskaintzan aerobika, mantenimendu gimnasia, tenisa, iharduera fisiko egokitu eta igeri ikastaroak izango dira datorren denboraldirako.**

Mantenimendu gimnasia eta aerobika izan dira arrakasta handiena lortu duten kirolak eta dagoeneko ekin diote denboraldiari. Hiru aste daramate izerdi betean, Nuria Rodrighez, Pedro Markos eta Asier Elorzaren agindupean dabilzanek.

## Aerobika gainezka

Aerobik ikastaroak, 160 partaide lortu ditu. Guztiak emakumeak dira eta adinari dagokionez, gazteria da nagusi. Astean bi edo hiru egunetan zehar jarduteko aukera dago; astelehen, asteazken eta ostiraletan edota nahi izanez gero, astelehen eta azteazkenetan. Ordutegiak aukera zabala eskaintzen du, 15:30etatik hasi eta gaueko 21:00ak arte. Ikastaroa ordubeteko bada ere, aerobikak eskaintzen dituen modalitate ezberdinak lantzen dira. Nuria Rodrighezek eskaintzen duenarekin pozik azaldu dira emakumeak, bosgarren urtez ari baita eibartarra herriko emakumeak sasoi betean jartzen. Berak esan digunez, "jendea oporretatik bueltan, gogo handiz etorri da. Hasierako pausoak kosta egiten dira piskat eta horrek giharminak sortzen ditu, gorputza geldu egon baita luzarotan; dena dela, be-



Nuria Rodrighezek zuzentzen duen aerobik taldeetako bat astean zehar izandako saioan.

rehala hartzen dute martxa. Ordubeteko saioak izaten dira eta egun bakoitzean, modalitate ezberdinak lantzen ditugu. Gehienbat step, koreografia eta saltsa".

## Mantenimendu gimnasia

Ikasle gutxiago badaude ere, urteak joan ahala kopuruak gora egin du. 85 gaztek, Pedro Markos eta Asier Elorzaren esanak jarraitu beharko dituzte. Astelehen, asteazken eta ostiraletan 10:00etatik, 11:00etara, eta arratsaldean, 19:30etatik, 20:30ak arte. Astearte eta ostegunetako ordutegia berriz, 19:15etatik 21:15etara bitartekoa da. Asier Elorza goizeko txandan arituko da

eta Pedro Markos arratsaldekoan. Mantenimendu gimnasia alor ezberdineak lantzen ditu. Beroketa egiten da, giharrak gogortzeko ariketak eta kirol ezberdinak ere bai.

Matrikula 3.000 pezetakoa da aerobik eta mantenimendu gimnasia eta ikasturtea amaituz gero, matrikula bueltatu egiten da. Horretaz gain, hiru egun aukeratu dutenek 3.150 pezeta ordaindu beharko dute; birritan jardutea erabaki dutenek, berriz, 2.650.

## Tenisa, iharduera fisiko egokitu eta igeriketa

Tenisa, iharduera fisiko egokitu eta igeriketa ikas-

taroak hasi gabe daude oraindik. Tenisa, esaterako, San Martin jaien ostean hasiko da. Astearte eta ostegunetan izango dira ikastaroak, arratsaldeko 19:15etatik, 21:15ak bitartean eta 3.000 pezeta ordaindu beharko da Udaleko kirol Zerbitzuan.

Iharduera Fisiko Egokituari dagokionez, ikastaroak urrian izango dira, astearte eta ostegunetan, 18:00etatik, 19:00etara eta 7.000 pezeta ordaindu beharra dago. Igeriketa ikastaroak irailaren 29an hasiko dira 3 eta 4 urte bitarteko gaztetxoentzat eta baita 5 urtetik eta 12ra bitartekoentzat eta 13 urtetik gorakoentzat ere bai. Kasu honetan bi maila bereiztu dira, hasierakoak eta hobekuntza ikastaroa jaso nahi dutenak. Prezioa, 8.200 pezeta. Ordutegiak, goiz eta arratsaldean antolatuta dira, hainbat ordutan. B

**lazko aerobik deialdian jende ugari izan bazen ere, oraingoan kopuruak gora egin du**

## Labegaraietako txapelketa

Astebukaeran hasiko da. Jokatuko diren partiduak:

### ZAPATUAN BARRUAN

- 10:30:** Ezinleike-Amilotx  
Komando Piperrak  
**11:30:** Komando Piperrak-Irubide jat.  
Mo(ko)lotov  
**12:30:** Mo(ko)lotov-Igandekoak  
Irubide jatetxea  
**16:00:** Ufala-HHH / Patatus  
**17:00:** Patatus-Agiñaspi / Zubixaurre  
**18:00:** Zubixaurre punk-Bayer / Agiñaspi

### DOMEKAN BARRUAN

- 09:00:** Errotagain-Shaktale / Gozoak  
**10:00:** Gozoak-OH Zerezos / Ortz  
**11:00:** Ortz-Bildurbare Opel/Lam  
Jauja OH Zerezos  
**16:00:** Pinturas Bergara-  
Tom Cat Argandolas / A Ze Flaxa  
**17:00:** A Ze Flaxa Etxagi-Pagomendi  
Azpeitxi jatetxea  
**18:00:** Azpeitxi jatetxea-Manitou  
Pagomendi  
**19:00:** Arbe kirolak-Buya / Amozkibar  
**20:00:** Amozkibar-Uve Bikoitza / Buya

### DOMEKAN KANPOAN

- 09:00:** Etengabe-Txipiron / Urrutxurtu  
**10:00:** Urrutxurtu-Usoa / Matxakategi  
**11:00:** Matxakategi-Ari Ari / Usoa  
**16:00:** FAC-SLP / Xurruapak  
**17:00:** Xurruapak-Agirrebeña jatetxea  
La Juve  
**18:00:** Patxaran Team-Eri Sirimiri  
Agirrebeña jatetxea

## Preferentea

- 17:00, Agorrosinen:** Bergara-UDA

# Kross herrikoia zapatuan kalean



Adin guztietako korrikalariek hartuko dute parte lasterketan.

ARTXIBOA

**Urtero bezala,** San Martin jaiak aprobeztatuz, Bergarako Atletiko Zaleak kross herrikoia antolatu du. Zapatuan, 19:00etan San Martin plazan emango zaio irteera. Hiru maila izango dira; 14 urterainokoak, 14-15 bitartekoak eta 18 urtetik gorakoak. Maila bakoitzak ibilbide ezberdinak izango ditu. Gaztetxoena, 1.700 metro aritu beharko dira, plazatik hasi eta Egin-Mallea etxeraino. Ibilbide honi,

bi buelta eman beharko diote. Erdi mailakoek hiru buelta emango diote ibilbide osoari. Plazatik hasi, Bidekurutzea, San Pedro, Goiko plaza, San Pedro eliza, Arteka, Arruriaga, Burdinarte, Egin-Mallea plaza, Masterreka, Bideberri, Migel Altuna Institutua, Ariznoa eta Barrenkaleak osatzen dute ibilbide. Guztira, 4.560 metro. Nagusiek sei bira lastertu beharko dituzte: 9.120 metro. **B**

## Binakako IX. Pala txapelketa

**Bergarako Udal Kirol Zerbitzuak,** 16 urtetik gorakoentzat, Deba Garaiko zirkuitorako puntuagarria izango den pala txapelketa antolatu du. Urriaren 3an hasiko da eta Osintxuko pilotalekuan jokatu da. Partehartzaileek, 4.000 pezeta ordaindu beharko dute, irailaren 30a baino lehen Udal Kirol Zerbitzuan. 943 77 91 67.

## XXXIII. San Martin ziklismo saria zapatuan

**Zapatuan 16:00etan** emango zaio hasiera, Lokatza Txirindulari taldeak antolatu duen ziklismo sariari. 23 urtez azpikoek, 121 kilometroko ibilbidea egin beharko dute. Irteera, Ibargarai kalean izango da eta helmuga, 19:00ak inguruan espero da.

BIZKOTIAK ERREILENOAK ETA TOFOIAK

**Larrañaga**

San Pedro, 9 - Telefono: 761051

R.S.I. 209374 - 55

**BERGARA**

Gozogintzan aintzindari.

**ESPOLON**

**INGELES**  
98-99 ikasturtea  
matrikula zabalik

**School of English**

**INFORMAZIOA**

Ibargarai 31.  
barruko plaza.  
BERGARA.  
Telefona eta faxa:  
943 76 03 53.

Astehenetik eguakitzera  
10.00 - 12.30  
16.00 - 19.00

- ▶ KLASEAK GOIZEZ, EGUERDIZ ETA ARRATSALDEZ
- ▶ HAURRAK 6 URTETIK AURRERA
- ▶ GAZTEAK ETA HELDUAK
- ▶ AZTERKETA OFIZIALETARAKO PRESTAKUNTZA
- ▶ ENPRESAK: INGELES TEKNIKOA ETA KOMERTZIALA
- ▶ IKASTARO TRINKOAK
- ▶ CAMBRIDGE UNIBERTSITATEKO AZTERKETETARAKO ES438
- ▶ DEBA-DURANGALDEKO KOMITEKO KIDEAK. ABENDUKO DEIALDIRAKO MATRIKULA ZABALIK

**PILI GISASOLA**

**Santiveri**

Osasun eta Dietetikaren  
espezializatutako zentrua

Zurradero 2 behea.  
☎ 943 76 58 83

**JAUJA KIROLAK**

Irizar 2  
☎ 943 76 14 95

**JAUJA KIROLAK**

**1. ETXEBIZITZAK**

**Saldu**

Pisu amueblatua salgai Antzuolan. Deitu 943 76 60 41 telefonora.

Barrenkalean apartamentua. 943 76 56 41.

Etxea salgai Osintxun. Erdi-amueblatua. Deitu 943 76 49 74 telefonora.

S. Antonio. 943 76 56 20.

Mekolalde. 943 76 05 79.

Pisua salgai Martokon. la amueblatua. 943 76 34 20/37 99.

Pisua salgai Donostian. 943 43 11 00.

**Errentan hartzeko**

Urritik aurrera pisua alokatuko genuke. 945 45 52 09 (Vanessa).

Pisua alokatu nahi du. 943 76 21 48 (Felix).

Pisua alokatu nahi dut. Urjentea. 943 76 72 45 (Carmen).

Pisua alokatu nahi dut. Deitu 943 76 30 57 telefonora.

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!**

**1. ETXEBIZITZAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Etxe konpartituak  
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**3. LOKALAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**4. LANA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**6. AUTOAK/  
MOTOAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**8. DENETARIK**

Saldu  
Erosi  
Eman  
Hartu  
Trukatu  
Galdu  
Aurkitu  
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**

Agurrak  
Kontaktak  
Deiak  
Bestelakoak

**Etxe konpartituak**

Pisua konpartituko nuke. 943 88 24 60 (Mikel).

Neska behar da Donostian pisua osatzeko. 943 71 49 46.

Bi pertsona behar dira Bilbon (San Inazio) pisua osatzeko. 943 77 13 77.

Bi neska behar dira Gasteizen pisua osatzeko. 943 76 47 70.

Donostian (Amaran) bi

lagun behar ditugu pisua konpartitzeko. 943 79 27 42.

**2. GARAJEAK**

**Saldu**

Garajea Torrekuan. 2 plaza. 943 76 28 24.

Masterreka. 943 76 27 71.

Burdiñate. 943 76 40 74.

Ibargarai. 943 76 57 93.

Garajea salgai Maste-

rrekan. 943 76 24 57.

Boni Laskurain. 943 76 17 84.

Garajea salgai. 943 76 40 03.

Zurradero. 943 76 02 89.

Ibargarai. 943 15 15 81.

Garaje bikoitza S. Lorentzon. 943 76 58 00.

Garajea salgai San Antonion. 943 76 15 37.

Kruz Gallastegi. 943 76 27 61.

**Errentan emateko**

Garajea alokairuan Bolun. 943 76 55 26.

Ibargarai. 943 76 56 91.

Garajea alokairuan Poligonan. 943 76 32 58.

Garajea alokairuan Matriategin. 943 76 22 09.

**Errentan hartzeko**

Garajea alokairuan hartuko nuke Zubietan. Deitu 943 76 47 50 (Jabi) telefonora.

Garajea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

**3. LOKALAK**

**Saldu**

Lokala salgai A. Fleming. 943 76 00 84 / 76 35 83.

Bi solairuko txabola salgai, ortuarekin. Prezio interesgarria. 943 76 07 87.

**4. LANA**

**Eskaintzak**

Edadetuak zaindu edo etxeko garbiketak egingo nituzke. 943 76 00 90.

Klinika laguntzaileak gaisoak/helduak zaintzen ditu. 943 76 64 47.

Haurrak zainduko nituzke. 943 76 01 84.

Neska batek etxeko lanak egin edo haurrak zainduko lituzke (arratsalde). 943 76 72 31.

Neska eskaintzen da atariak edo etxeak garbitzeko. 919 52 98 04.

Etxeko lanak orduka egingo nituzke.

**FRANTSSES  
IRAKASKUNTZA**

**98-99  
ikasturtea**

Izena emateko epea:  
urriaren 2ra arte.



**Informazio gehiago:**

Mizpildi,3 1. ezkerria. BERGARA.  
Tf. 943 76 30 55

Orduetgia: 10.00-12.00 eta 17.00-19.00

**Arrasateko  
taberna batek  
ZERBITZARIA**

behar du  
Euskara eta  
esperientzia  
komenigarriak  
943 79 60 10



**MEMESA**

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

**BEGIRALEAK**

Astebukaeretan Kartzela Zaharrean gaztetxoekin lan egiteko begiraleak behar dira.

INTERESATUEK BIDALI CURRICULUMA

IRAILAREN 25A BAINO LEHEN KARTZELA ZAHARRERA.  
Tf. 943 76 36 61





943 76 57 59 (Julia).

Arratsaldeetan haurrak zainduko nituzke. Espe-  
rirentzia. 943 76 03 76  
(Maite).

Neska batek edadetuak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke.  
943 76 09 33.

Neska batek etxeko lanak egin eta haurrak zainduko lituzke.  
943 76 57 55.

#### Eskaerak

Antzuolan neska bat behar da umeak zain-  
tzeko eta etxeko lanak egiteko (urritik aurrera).  
943 78 71 06.

Neska euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko.  
943 76 13 53.

Emakumea behar da etxeko lanak egiteko eta haurrak zaintzeko.  
943 76 01 21.

Emakume bat behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako.  
943 76 48 27.

Bi ume zaintzeko per-  
sona bat behar da. 943  
76 02 60.

Umeak zaindu eta etxe-

ko lanetarako neska bat behar da. 943 76 31 11.

Neska edo andra eus-  
kalduna behar da egun osoan etxean lan egiteko. 943 76 13 23.

#### 5. IRAKASKUNTZA

##### Eskaintzak

Ingeles klaseak ematen ditut. Deitu 943 76 53 88 zenbakira (Rosa).

Frantseseko klaseak. 943 76 39 68.

Ingeles klaseak ematen ditut. 943 76 17 18 (Jesus).

OHO eta BBBko 3. mailara arteko klaseak. 943 76 72 24 (Saioa).

Majisteritzako ikasleak OHO klaseak ematen ditu. 943 76 47 30 (Aitziber).

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

Ingeles klaseak. 943 76 25 79 (Nuria).

Majisteritzako ikasleak OHOko klaseak ematen ditu. 943 76 37 94.

OHO eta BBBko 3. mailara arteko klaseak.

943 76 32 93.

Mate, fisika eta LOGSE 2. mailara arteko klaseak. 943 76 24 31.

Enpresaritzako klaseak. 943 76 05 43.

1. eta 2. Hezkuntzako klaseak. 943 76 42 08 (Nere).

Mate, fisika eta informatika klaseak ematen dira. 943 76 46 03.

Majisteritzako diploma-  
tuak klaseak ematen ditu. 943 76 10 17 (Rosa).

#### 6. AUTOAK/MOTOAK

##### Saldu

Renault-9 kotxea (SS-V) salgai. Prezio interesgarria. 943 76 25 31.

Rover 216 kotxea (NA-W) salgai. 943 72 63 47 (Angel).

Opel Ascona 1.600 kotxea (SS-W) salgai. 943 76 05 13.

Remolkea salgai. 1,10x1 m. Poliesterreko tapa, ia berria. 943 76 37 87.

Kotxea (SS-V) salgai. 943 76 36 74.

#### 7. ANIMALIAK

##### Saldu

Cooker ingeles txakurak. 943 76 72 45.

##### Bestelakoak

Katuak oparitzen ditut. 943 76 57 67.

#### 8. DENETARIK

##### Saldu

Calloy mendiko bizikleta. 943 78 70 58.

Bainurako manpara, 1,55 m. 943 76 64 65.

Lur entziklopedia salgai. 943 76 02 79.

Bizikleta estatikoa salgai. Ia berria. 10.000 pezeta. 943 76 07 88.

Hozkailua erosiko nuke. 943 76 50 58 (Maritere).

##### Galdu

Kiroldegian gizezko erloju bat galdtu nuen irailaren 5ean. 943 76 57 50.

San Martin bezperan urrezko belarririkoa galdtu nuen. 943 76 00 66.



## Langai

Euskal Lan Zerbitzua

#### KALITATE KONTROLEKO TEKNIKARIA

Deba Garaia. 12176/1

#### INFORMATIKA IRAKASLEA

Deba Garaia. 12153/5

#### ADMINISTRARIA

Tolosa. 12259/1

#### INFORMAZIORAKO 2 AZAFATA

Urola Kosta. 12305/4

#### PROGRAMATZAILEA

Bilbo. 12399/2

#### ANALISTA ORGANIKOA

Bilbo. 12381/3

#### FOTOKOPIADOREN ERABILTZAILEA

Bilbo. 12291/2

#### INFORMATIKA IRAKASLEA

Bilbo. 10845/3

#### RPG

#### PROGRAMATZAILEA

Bilbo. 12224/5

#### DELINEANTEA

Bilbo. 12271/3

#### TENISEKO MONITOREA

Bilbo. 12456/1

#### PROMOZIOETAKO TEKNIKARIA

Bilbo. 12459/2

#### KAMIOIEN MEKANIKAKO AJUSTATZAILEA

Ezker aldea. 12118/2

#### INTERNET PROGRAMATZAILEA

Deba Garaia. 11901/8

**Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara.  
Telefona: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

## LA PUERTA AL INGLES, S. L.

# Etxekoandre eta etxejaunendako INGELES klaseak

- Astean bi egun. 15:00etatik 16:00etara
- Matrikula ordaindu beharrik gabe

**Kurtso hasiera urriaren 1ean**

INFORMAZIOA: Burdiñate 5, Bergara Tf. 943 76 30 01

Amaia Olañeta eta Argiñe Urkiola

## “Elurzuloetako lana gertutik ezagutu duten oso gutxi biziko dira inguru hauetan”

**Martitzenean aurkeztu zen Udaletxeko Pleno Aretoan “Txondorrak, karobiak, elurzuloak” liburua, galduta edo galtzear dauden langintza zaharrei buruzko liburu bildumaren bigarren atala. Liburuaren egileek, Amaia Olañeta (36 urte) eta Argiñe Urkiola (37 urte) irakasle uberarrek, egin duten lanaren nondik norakokak kontatu dizkigute.**

**G.** Lan hau egin aurretik ezagutzen zenituzten txondorrak, karobiak eta elurzuloak?

**E.** Gauza gutxi, gure edadeko beste edozeinek adina. Horregatik, hasierako lana liburutegietan eta artxiboetan egin genuen, langintza hauei buruzko ahalik eta informazio gehien topatzeko; ondoren, lekukoei galderak egitera joateko. Hasieran ez genuen gauza askorik topatu. Langintza txikiak dira eta ez dago gaiari buruzko bibliografia askorik, nahiz eta daudenak onak izan.

**G.** Noiz hasi zineten lanean?

**E.** 1993an lekukoei elkarrizketak egiten hasi ginen eta urtebete inguru eman genuen lan horretan. Ondoren, elkarrizketa saioretan grabatutakoa transkribitzen hasi ginen. Oso lan konplikatu eta astuna izan zen. Informanteek esandakoen transkribapen zuzen-zuzena egin dugu. Lekukoek oso ondo hartu gaituzte, alde horretatik ez dugu arazorik izan.

**G.** Informante zuzenak errez topatu dituzue?

**E.** Elosu aldean ez genuen elurzuloak zuzenean ezagutu dituen inor topatu. Elur lekuak topatzearren, Elgeta aldera jo genuen eta han ere ez genuen informazio zehatzik lortu. Azkenean, Berrion Paulina Azkargortarekin izan ginen, elurzuloak zuzenean ezagutu zituena. Bestalde, “Bizkaiko elurzuloak” liburuaren bitartez, Gabriel Biterirekin eta Juan Jose Apoitarekin, Otxandioko elurzuloko lanak hurbiletik ikusitakoekin, izan ginen. Egun hilda daude.



“Txondorrak, karobiak, elurzuloak” liburuaren egileak Elkoro Barrutiako karobiaren aurrean.

**G.** Horrek esan nahi du langintza hauei buruzko lekuko zuzenak topatzea oso zaila dela eta zuen informanteak izan diren batzuk gaur egun hilda egoteak garrantzi haundiagoa ematen dio egun duzuen lanari.

**E.** Elurzuloetako lanak gertutik ezagutu dituen oso gutxi biziko dira inguruan, horregatik esan daiteke agian beranduegi izan dela horrelako lan bat egiteko, baina liburuaren eginda dago.

**G.** Ustekabekorik izan duzue lexiko aldetik?

**E.** Bai. Neurri batean normala da, guk ezer gutxi genekielako langintza hauei buruz. Esaterako, *apainddu* hitza egurra ebakitakoan enborrari adarrak kentzeari esaten zioten gure infor-

manteek; *trixkia egin* eta *soilddu* ere honen sinonimo bezala erabiltzen zituzten.

**G.** Hiru langintzetatik aberasgarriena zein da?

**E.** Jendearentzako bitxiena elurzuloena izango da, nahiz eta hiztegi aldetik hain aberatsa ez izan; txondorrarena aberatsagoa da hiztegi aldetik.

**G.** Eta zein galdu zen lehenengo?

**E.** 1924. urte inguruan egin zen Berrion azkenengo elurzuloa; txondorrek geroago ere egin izan dira. Adibidez, Elosu aldean, Agarre baserrian, 1961.ean egin zen, baita Gomezkorta baserrian ere urte batzuk beranduago.

**G.** Teknika aldetik ezberdintasunik badago tokiaren arabera?

*“Elosuko neberoei buruzko lehenengo datua 1664. urtean agertzen da Udal Artxiboan; bestalde, elektrizitatea agertu zenean laga zioten elurzuloak erabiltzeari”*

**E.** Teknika aldetik ez; bai, ordea, lanerako erabiltzen den lehengaiari dagokionez. Esate baterako, txondorrek egiteko, Elosun pago-txara erabiltzen zuten, basoetan hori dagoelako; oster, beste toki batzuetan artea edo gaztaina erabiltzen zuten. Lexiko aldetik ere badaude ezberdintasunak. Adibidez, txondorra egiteko erdi-erdian jartzen zen makilari erdiko hagia esaten zitzaion hemen eta Lazkaon, berriz, alkatza esaten zioten.

**G.** Karobiak, txondorrek eta elurzuloak inguru honetan bezala, beste zenbait tokitan ere eman ziren?

**E.** Bai, bibliografia aztertzen aritugarenean, karobiak Sevillan ere eman zirela ikusi dugu. Bestalde, hemen eta beste toki batzuetan batera galdu ziren:

elurzuloak, elektrizitatea agertu zenean; karobiak, gerra inguruan, batzuk gerra aurretik eta beste batzuk gerra osteko lehen urteetan, jendea beharretan tailerretan hasi zenean; txondorrek ere gerra ostean desagertu ziren, ikatza erreka moduan gero eta gutxiago erabiltzen hasi zenean. Bestalde, elurzuloak toki altu eta laiotzetan egiten ziren moduan, karea egiteko lur batzuk beste batzuk baino egokiagoak ziren.

**G.** Eta langintza hauei buruzko lehen informazioak noizkoak dira?

**E.** Elosuko neberoei buruzko lehenengo datua 1664. urtean agertzen da Udal artxiboan.

**G.** Karobie dagokionez, bi eratakoak zeuden, ezta?

**E.** Bai, bata, zulo bat aprobetxatuz,

muna egin eta beheko partean, metro bateraino edo, irteera bat zeukana (erlatxa); honen gainean, lehenengo harri ilada hasten zen arku egiteko; gero, bigarren eta hirugarren harri iladak eta, azkenean, giltzarriarekin itxi egiten zen. Arkuaren gainera karearria botatzen zen, karea erretzeko. Bestalde, kanpoko horman karobiak sarreratxo bat zeukan, ataka izeneko, eta ataka horren azpian kainu bat, tuneltxo bat, barreneko errautzak eta ateratzeko. Karobiari tirua emateko eta errautzak ateratzeko erabiltzen zen tuneltxoa. Karobi mota honi zakarrezkoa deitzen zioten eta beste karobi mota bat ere baze goen, arragoa edo frantses karobia izeneko, baina inguru hauetan arragoa izenekoak topatu ditugu batez ere. B

## Aspaldiko lanbide ezagunak gure artean

Ikatza eta karea egiteko, edota elurra gordetzeko lanbideak aspalditxotik dira ezagunak gure artean. Batzuk beste batzuk baino lehenago hasitakoak izango dira. Iraupenari dagokionean ere, ez dute historia berbera eduki, nahiz eta hirurak XX. mendera arte iritsi zaizkigun.

Ofizio hauetariko bakoitzak eskatzen zuen jarduna gauzatzeko, leku zehatz bat behar izaten zen. Egurrikatza egosteko txondorra, karea egiteko karobia, eta elurra batu eta gordetzeko elurzuloa.

### Txondorra

Garai batean burdinolek Euskal Herrian izan zuten garrantziarekin lotuta, egurrikatzaren inportantzia ere izugarria izan zen. Txondorleku asko topa daitezke oraindik gure basoetan; baita txondorgintzan aritutako ikazkin ohiak ere. Hemengo basoetan, eta lekuko esanetan, gehienbat pago-txara, pagoa, gaztaina



eta haritza erabiltzen ziren ikatza egiteko orduan. Bergara inguruan, Elosun esate baterako, txondorrek Elosutik hasi eta Pol-Pol ingururaino egiten ziren. Noizean behin txondorren bat pizten dute han-hemenka, kapritxoz edo erakustaldiren bat egiteko. Esaterako, 1974. urtean San Martin plazan egin zuten txondorra.

### Karobia

Ikazgintza baino berandutxoagokoa izango dugu karegintza, seguruenik. Le-



henagotik ere ezaguna izan arren, XVIII eta XIX. mendeetan gehitu zen asko karearen produkzioa; artoak euskal baserri iraultza txiki bat ekarri zuenean, hain zuzen ere. Nahiz eta azken urteotan dozenaka hondatu diren, artean makina bat karobi geratzen zaigu inguru hauetan (Elkoro Barrutian, Aierdin, Elorregi Goitien (goiko argazkia), Zabarten, Billabeñe-



sen...) nork garbitu eta konponduko dituen zain. Karegintzan jardundako pertsonak, berriz, bakanak ditugu.

### Elurzuloa

Izotza oso estimatua izaten zen freskagarriak egiteko nahiz botikak eta sendagaiak prestatzeko. Gaur egungo hozkailurik ez zegoenean, elurzuloak erabiltzen ziren neguan elurra pilatu, izotzu eta gordetzeko, gero udan izotza eduki ahal izateko. Izotza indar elektrikoaz egiteari ekin ziotenean, utzi zitzairen elurzuloetako lanei. Horregatik nekez aurki dezakegu orain zeregin horietan aritutakorik. Bergara inguruan, Neberetako kurban, Gorrara bidean (goiko argazkian) edota Elosuko Agarre baserrian aurki ditzakegu. B

*Jerardo Elortza, liburuaren dokumentazio arduraduna*

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

**Ezker eskuma**

1. Bedeinkazioa eman. 2. Larruazaleko guruin batzuek jariatzen duten likidoa. Ez eme. 3. Gipuzkoa, zain. Sasoi. 4. Gizon izena. Esaten dut. 5. Baldintzetan. Ebakuntza egin. 6. Arnas ezak hil. Modua. Landa. 7. Dauka. Barazki mota. Oxigenoa. Uranioa. 8. Bokala. Europako estatua. 9. Interjekzioa. Ote ar. Arkuaren erdian. 10. Bizkaiko sortaldeko herria.

**Goitik behera**

1. Lanbideak. 2. Desagertarazi. Kasik. 3. Deialdia. Zero. Lehenengoa. Röntgen. 4. Erbioa. Har ezan! Soro. 5. Zezen zikiratu. Espainiako diru unitatea. 6. Eramaten ninduen. 7. Jearleku mota. Ardi, hitz elkarketan. 8. Bokala. Emakume izena. Zintzo. Akenekoa. 9. Karta jokoa. Garoa. 10. Oinarrizko edari. Hodiak.

**Soluzioa**

9. Tarota. Ira. 10. Ur. Turak. 7. Kadra. Art. 8. A. Ana. On. Z. 5. Idi. Pezeta. 6. Nideraman. 2. Dera. O. A. R. 4. Er. Noi. Alor. 1. Bizibideak. 2. Ezabatu. Ia. Goitik behera 10. Karrantza. 8. E. Alemania. 9. Ai. Otaz. Hk. 7. Du. Aza. O. U. 5. Ba. Operatu. 6. Ito. Era. Ar. 3. Zai. Indar. 4. Iban. Dint. 1. Bedeinkatu. 2. Izerdia. Ar. Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkorobereziabar

**Ze santu izen dauka baserri honek?**

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Gaspar** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Beni Perez**entzat izan da: Zumelaga jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Beniri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Santa Ana/San Frantzisko Borja** Galde Debalde: **1-C, 2-B, 3-B.**

galde debalde

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

- Zenbat QSL-txartel kaleratu dituzte 24 orduko Irrati Kontaktu Lehiaketarako? A- 2.500 B- 1.800 C- 2.050
- Nork irabazi du San Joxepe jubilatuen elkarteak antolatutako kartel lehiaketa? A- Ricardo Azkargortak B- Juan Jose Altuna Akizuk C- Jesus Mari Lazkanok
- Zer izen dauka zapatuan Labegaraietan jokatuko duen eskubalo talde eskoziarrak? A- SS 77 B- Tryst 77 C- Tryst 77

**BONOFOTOA**

**GALDE DEBALDE** 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izena-deitura: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

**Gaspar**  
JATETXEA, TXOKOLATEGIA,  
SELF-SERVICE-a  
Barrenkalea 31 Tf. 943 76 20 02

**Surra Irratizaleen Elkarteak irrati-kontaktuen lehiaketaren edizio berri bat iragarri du bihar zaturako. Josu Leturia irratzalea dugu, nahiz eta aitortu harategiko lanagatik denbora falta zaiola irrati ekipoarekin aritzeko.**

## Josu Leturia

**Noiztik daukazu irrati ekipoa?**

Duela 8 urte ekipoa txiki bat erosi nuen eta orain logela irrati ekipoz beteta daukat.

**Irratiarekin zenbat ordu egunean?**

Orain oso gutxi. Denborarik ez...

**Zein sasoitan erabiltzen duzu gehien?**

Neguan, edurrak direnean.

**Irratiarekin gaeuz ala egunez?**

Gaeuz normalean.

**Urteotako esperientziarik politena?**

Irratiz ezagututako Iruneko lagun batekin elkartzea, bost urte pasa ondoren.

**Jende asko ezagutu duzu horrela?**

Bai. Gero erlazioa jarraitzea ingurukoekin errezagoa izaten da.

**Norekin kontaktatzea gustatuko litzaizuke irrati?**

Erregearekin beharbada baina oso zaila da.

**Irrati komertziala entzuten duzu?**

Sei eta erdietan jeikitzen naizenetik piztuta izaten dugu.

**Irrati programa bat?**

Asko: Radio Euskadiko magazinea, Euskadi Gaztean musika, kirolak COPEn...

**Esatari bat?**

Jon Uriarte, Roberto Moso, Linares...

**Kotxean, musika ala irrati?**

Musika nahiago.

**Talde bat?**

Pantxoia eta Peio, Xabier Lete..., holakoak gustatzen zaizkit.

**Harategiko lanik gogorrena?**

Goizean goiz jaikitzea.

**Gustokoena?**

Jendearekin tratua.

**San Martinetako txekorra jan zenuen?**

Egia esateko, goizean pintxo bat bakarrik.

Gauean ez nuen probatu ere egin.

**Platerrik gustokoena?**

Arraina, bixigua.

**Jan ezin duzun bat?**

Angulak!! (barre). Dena gustatzen zait.

**Ogitarteko bat, zerena?**

Urdaizpikoarena.

**Edari bat?**

Melokotoi likorea eta Coca-Cola.

**Sukaldari ona zara?**

Gustatu egiten zait sukaldean ibiltzea.

**Zure espezialitatea?**

Rapea amerikar erara.

**Hobby bat?**

Irratia, mendia eta motorra.

**Inguruko mendi bat?**

Aloña.

**Clementek selekzioa utzi behar zuen?**

Nik segitzea nahi nuen baina kontrako asko izan ditu.

**Bergarako Orioko Peñakoak joango zineten estropadetara...**

60 lagun joan ginen domekan; nahiz eta estropadak ez ikusi primeran ibili ginen.



**98-99 IKASTURTEA**

**INGELES  
FRANTSES  
ALEMANA**

**MATRIKULA ZABALIK**

**Ikasturtearen hasiera: urriaren 1ean.**

- Talde txikiak.
- Maila guztiak.
- Adin guztiak: gazte, heldu eta...

**• UMEENTZAKO HASIERA IKASTAROAK  
(6 URTETIK AURRERA).**

- Azterketa ofizialen prestakuntza.
- Hiru hilabeteko ikastaro trinkoak
- Goizez, eguerdiz eta arratsaldez.



**INFORMAZIOA: Bergarako UNED. San Martin plaza z/g (3. pisua) ☎ 943 76 06 87. Bulego ordutegia: 10:30-13:00 eta 16:30-19:30**



## Danok-Bat futbol taldea

Argazkian agertzen den kuadrilak Danok-Bat taldea osatzen zuen 1940 urtean. Gerra ostean, kuadrila batek Bergaran martxan jarritako lehendabiziko futbol taldea ei zen. Astebukaeretan, inguruko herrietako beste kuadrila batzuren kontra jokatzeko ohitura zeukaten. Arrasate, Deba edota Elgoibarrera irteera egin eta bertako talderen aurka lagunarteko partiduak jokatzeko zituzten. Partidu osteko bazkaria edo afaia izaten zen jokoan eta futbol zelaian botatako izerdiak ederki asko errekupe-ratzen zituzten Danok-Batekoek. Taldearen

maila bikainaren adierazgarri, taldeko askok Bergararekin jokatu zuten ondoren. Argazkia 1940koa da eta hauek dira taldekideak, garai hartan 17-19 urte zituztenak:

**Zutik:** Victoriano Larrañaga, Julio Larrañaga, Andres Osinalde, Jesus Larrañaga, Pedro Soria, Pantaleon Oregi eta Luis Agirre.

**Makurtuta:** Pedro Albizua, Luis Garmendia, "Firpo", Miguel Oyanguren eta Victorio Bilbao.

*Argazkia: Jesus Larrañaga*

### OHARRA

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzo, zatoz!

# ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

Izan zaitez zeure osasunaren lagun.  
Horretan geuk lagunduko dizugu!

Kontzeziño 2 • ARRASATE • Tf.: 943 79 89 34



# Zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA  
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

# Gidari onenek

# OHOREZKO-MATRIKULA

## merezi dute

### Aldatu zaitez MAPFREera

**Azkartu  itzazu zure bonifikazioak**

**Orain** zure automobilaren aseguria aldatzea **ez zaizu ezer kostako.**

**Mapfreren Ohorezko Matrikula Planarekin**, oraingo polizaren antiguedadeari eutsiko diozu (95.1.1. baino lehenago edozein konpainiatan kontratatutako polizetarako baliagarria).

Lor ezazu **bonifikaziorik haundiena denborarik motzengan.**

 **MAPFRE**

Argibideak: Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.



**MARGA**  
JANTZIDENDA

*Udazken-neguko modarik berriena zain daukazu:*

San Pedro 20 Tf. 943 76 05 37

# JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra



**6** URTEKO  
GARANTIA



**Sukaldeko altzariak**

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak  
San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.  
Telefona: 943 76 03 30. Faxe: 943 76 02 91.